



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

GIZARTE ZERBITZUEN ESKARIAREN ESTADISTIKA

Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2014 Modulu orokorra

*Emaitza nagusiak
2015eko urriaren 27a*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren
Estatistika Organo Espezifikoa*



SARRERA

Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE), Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI) den aldetik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak garaturiko eragiketa da. 2006an egin zen lehendabiziko aldiz.

GZEEaren helburu orokorrek honako bi gai hauek dituzte ardatz:

- a) Gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen eskariaren dinamika ezagutzea, bere dimentsio kuantitatiboan zein kualitatiboan.
- b) Era berean, biztanleriaren gizarte-premiak ezagutzea, eurek duten eragina benetako eskari gisa aztertuta.

Ondorioz, GZEEak bi osagai osagarri ditu: batetik, hainbat gizarte-zerbitzuren eskariarekin zerikusi zuzena duena, eta, bestetik, biztanleriak dituen gizarte-premien azterketarekin lotuta dagoena.

Txosten honetan GZEEaren bigarren dimentsio horren inguruko emaitza nagusiak aurkezten ditugu, zeina gizarte-premietan zentratzen baita. Izan ere, GPIaren ardatz nagusia da hori. Horretaz gainera, GZEE-GPIak egindako eskariaren inguruko informazio interesgarria ematen du, erlazionatu egiten baititu hautemandako premiak eta benetako eskaria; hain zuzen, gizarte-zerbitzuen zein gizarteratzera bideratutako gainerako zerbitzuen eskaria.

Emandako datuak eragiketaren hirugarren aplikazio-epeari dagozkio, zeina 2014ko bigarren hiruhilekoan garatu baita. Aurrez, 2006an eta 2010ean garatu zen inkesta. Hortaz, hainbat une historikori buruzko informazioa jaso da, eta, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gizarte-premien analisi diakronikoa gauzatu ahal izan dugu.

Komeni da zehaztea GZEE-GPIak baliatzen duen gizarte-premien kontzeptuaren inguruko hurbilketak gizarte-zerbitzuen esparru tradizionala gainditzen duela. Ildo horretan, gizarteratze-prozesuekin —lan-merkatuan eta enpleguan sartzeko prozesuak barne— zerikusia duten premien esparruan biltzen du arreta, modu zabalagoan, betiere. Horrek ez du esan nahi, dena den, gizarte-zerbitzuen garapenarekin lotutako funtsezko alderdiak ahazten direnik, hala nola adingabeei eragiten dieten arazoak eta mendekotasunaren tratamenduari buruzkoak.

2014az geroztik, GZEE-GPIak Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkestaren (PGDI-2014) modulu egokitu bat ere barne hartzen du. Helburu nagusia zera da: EAEko pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazle guztiak aztertzea, arreta berezia jarrita Europar Batasunean (EB) erabiltzen direnetan eta PGDIan berariaz sartutakoetan. Hurbilketa hori dela bide, 2012tik EAEko pobreziaren eta desberdintasunaren inguruko datuak dauzkagu eskuragarri, bi urtez behin. 2014aren amaieran aurkeztu

ziren estatistikaren atal horri dagozkion emaitzak, 2014ko PGDIaren moduluarekin lotutako alderdiei buruzko berariazko txosten batean.

Txostenaren edukiari dagokionez, zehaztu beharra dago horrek ez duela helburu GZEE-GPlan jorratutako alderdi ororen analisi zehatz eta erabatekoa izatea. Horren emaitza nagusiak aurkeztea du helburu, soil-soilik. Zentzu horretan, honako ondorio hauen oinarri den informazioa garatzen du:

1. Krisi ekonomikoa eta gizarte-egoeraren narriadura

1.1. Gora egin du egiturazko laneko bazterketak, zeina gabezia ekonomikoari lotuta baitago.

2014ko GZEE-GPlak jaso duen gizarte-narriadura nagusia laneratze-arazo berezien hazkunde handia izan da. Errealitate horrek barne hartzen ditu biztanleria aktiboaren barruan langabezia kronikoko hainbat egoeratan daudenak edota enplegu marjinaletan azpiokupatuta daudenak; horiek guztiek ekoizpen-sistema normalizatutik kanpo uzten dituzte biztanleak, egiturazko moduan. 2006-2010 aldian, egoera horretan dauden 16-64 urte bitarteko pertsonen kopuruak 53.885etik 40.862ra behera egin ostean, 2014an 120.109 biztanletan kokatu da. Horrek adin tarte horretan dauden biztanleen % 8,5 biltzen du; proportzioa areagotzen ari da, 2006an % 3,7 eta 2010ean % 2,9 izan baitzen.

Laneratze-arazo bereziak dituztenen kopuruak gora egitearekin batera, okerrera egin du lan-merkatuan duten egoera. Hala, talde horretan, gora egin du azken urtean lanarekin inolako kontakturik izan ez dutenen kopuruak: 2006an % 35,9 izan zen; 2010ean, % 67,2, eta 2014an % 84,1.

Aztertutako gizarte-errealitate hori oso lotuta dago gabezia ekonomikoarekin. 2014an, laneratze-arazo bereziak dituztenen % 49,6 oinarrizko premiak estaltzeko orduan gabezia desberdinak dituzten etxekoen unitateekin lotuta daude (oinarrizko gabezia).

1.2. Gora egin du EAeko babes-sistemaren prestazio-eskariak

Krisiren eraginez, asko areagotu da diru-sarrerak bermatzeko EAeko laguntza-sistemaren eskaria (DBE/EPO/GLL, KGP/GOF) eta garai bateko GBLP, gaur egun DBE prestazioaren barruan sartzen direnak). Aztertutako epean, bilakaera hauxe izan du eskariak: 2006an, etxekoen unitateen % 5,7 izan zen; 2010ean, % 6,8, eta 2014an, berriz, % 11,3ra igo da.

2006 eta 2010 bitartean, % 5ak inguruk aipatu sistema baliatu zuen bitartean, 2014an, % 9,4an kokatu da benetako erabilera. 2010-2014 bitarteko igoerak batez ere 45 urtetik gorakoei eta tokiko biztanleak dauden etxekoen unitateei eragin die.

1.3. Gizarte-zerbitzu publikoen gaineko presioak dirau

RGI eta EPOren kudeaketa Lanbidera transferitu izanagatik ere, 2014an presioak gogor jarraitzen du gizarte-zerbitzuetan. Hala, inkesta aurreko azken hiru urteetan, etxekoen unitateen % 16,1ak jo du



gizarte-zerbitzu publikoetara (2010ean % 16,7 eta 2006an % 15,1 izan ziren). Gainera, gora egin du ere gabezia-egoerak tartean, gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten etxekoen unitateen proportzioak.

1.4. Gabeziaren eta langabeziaren ondorioz, gora egin du ere zerbitzu asoziatiboaren erabilera

Gabezia-egoerak gora egin dute; horren ondorioz, nabarmen gora egin du mugimendu asoziatiboaren zen Elizari lotutako erakundeen –Caritas kasu– gizarte- eta arreta-zerbitzuetan egindako laguntza-eskariak. 2006 eta 2010 bitartean % 1,9tik % 1,6ra jaitsi ostean, eskaria % 3ra iritsi da 2014an. Bilakaera horren kausak 45 urtetik beherakoak dauden etxekoen unitateen dinamika eta tokiko biztanleek egindako eskariaren gorakada handia dira.

1.5. 2014ean areagotu dira nahi dituzten seme-alabak edukitzeko aukerari lotutako arazoak.

2006-2010 aldian, % 6,2tik % 5,1era jaitsi bazen ere, 2014an euskal etxekoen unitateen % 5,6ak (guztira 49.358) adierazi du familia- zein demografia-ugalketako arazoak dituela, ezin baitute nahi duten seme-alaben kopurua eduki. 2010-2014 aldiko hazkundea lanean ari diren pertsonak dauden taldeei eta tokiko biztanleak dauden etxekoen unitateei lotuta dago.

Aldiz, familia-laguntzen bilakaera zeharo desberdina izan da. 2006an, etxekoen unitateen % 10,2k jasotzen zituen familia-laguntzak; 2010ean, % 8ra jaitsi zen adierazlea, eta 2014ean, % 3,9ra.

1.6. Adingabeko biztanleek behar bezalako arreta jasotzeko zailtasunak daudela behatu dugu

Zailtasun ekonomikoek zenbait efektu negatibo eragin dituzte adingabekoentzako hezkuntza-arretaren dinamikan. Oinarrizko gabezia duten etxekoen unitateetan, ikastetxeetan dauden 0-5 urtekoen proportzioa % 53,2tik % 62,4ra pasa da 2010-2014 aldian, baina 2006ko % 83,6tik oso urrun dago oraindik. Ehunekorik txikiena bi urtekoen artean erregistratu da.

Beste alde batetik, gora egin dute hezkuntza-arloko arazoek eta eskola-atzeratasunak, gabezia ekonomikoa duten etxekoen unitateetan dauden 6-16 urte bitarteko adingabeen artean. Alderdi hori atzerritarrak diren adingabeen bilakaeraren ondorio da; hala ere, hain larriak ez diren eskola-integratioko arazoekin erlazionatuta dago.

1.7. Aldiz, behera egiten jarraitzen du egungo etxekoen unitateetik independizatzeko arazoak dituzten pertsonen proportzioak.

Orain arte adierazitakoaren aurka, 2006-2014 aldian behera egiten jarraitu du egungo etxekoen unitateetatik independizatu nahi duten eta arrazoi ekonomikoak tarteko ezin duten biztanleen proportzioak. EAEko biztanleen artean, murrizketa izan du bizitza independentea izateko arazoon pisuak: 2006an, % 11,5era iritsi ziren; 2010ean, % 8,3ra, eta 2014an, % 7,1era.

2. Mendekotasunaren arreta funtzionalagoa da berau behar duten biztanleentzat

2.1. Mendekotasunaren eraginak aurreko urteetako balioari eutsi dio

Aldagai sozial edo demografiko batzuen arabera ñabardura batzuk badaude ere –batez ere 75 urte eta gehiagoko biztanleei dagokienez–, nahiko egonkor mantendu da osasunari edo adin handiari lotutako mugapenen eta mendekotasunaren eragina. Guztira, mugapenen eragina apur bat areagotu da: 2006. urteko % 10,5etik 2010eko % 10,8ra igaro zen; ondoren, 2014an, % 10,9ra igo da. Mendekotasun bereziaren eraginari helduz, EAEko biztanleen % 5,4ra iritsi da; aurreko urteetako balioak baino zertxobait txikiagoa da hori, 2006an, % 5,5, eta 2010ean, % 5,7 izan baitziren.

2.2. Behera egin du kanpoko arretaren erabilerak, mendekotasun berezia duten biztanleen artean

2014an, mendekotasun berezia dutenen % 47,6k etxeko unitateetik kanpoko laguntzak edo zerbitzuak baliatu ditu, bai etxetik kanpoko zentroetan bai etxeko laguntza moduan, hirugarren pertsonen aldetik –senideak, bizilagunak edo lagunak barne–. GZEE-GPIa egiten denetik lortu den baliorik txikiena da hori, 2006ko % 53,7aren eta 2010eko % 58,9aren azpitik ere kokatu baita.

Kanpoko baliabideen erabilerak izandako beherakada zerbitzuen sisteman da bereziki deigarria, publiko/itunduetan zein pribatuetan. Bestalde, senideek emandako kanpoko babesaren balioa egonkorragoa da.

2.3. Zaintza-zerbitzuen erabileran erregistratutako beherakada arreta-eskariaren jaitsieraren ondorio da

Arretaren beherakada azken lau urteotan zaintza-zerbitzuen eskariak izandako murrizketa handiarekin lotuta dago. Eskaera egin duten etxeko unitateen proportzioak 2010eko % 7,4tik % 6,5era jaitsi da 2014an. Modu horretan, 2006. urteko proportziora itzuli da. Arreta jasotako etxeko unitateen proportzioak ez du hainbesteko beherakadarik izan: 2010-2014 aldian % 5,9tik % 6,6ra igo ondoren, proportzioa % 6an kokatu da 2014an.

Aldiz, adierazleak gora egiten jarraitu du 75 urtetik gorakoak dauden etxeko unitateen kasuan: 2014an, zaintza-zerbitzuak baliatu dituztenen % 72,5 osatu dute.

2.4. Aipatutako beheranzko joeren aurka, gora egin du mendekotasunari aurre egiteko sistemaren prestazioen erabilerak

Kanpoko arretaren erabilerak eta zaintza-zerbitzuen eskariak behera egin duten bitartean, 2010-2014 aldian areagotu da *AMAS sistemaren* –Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema– prestazioen erabilera. Mendekotasun berezia duten pertsonak dauden *etxeko unitateetan*, prestaziook baliatu dituztenen proportzioa 2010eko % 20,7tik 2014ko % 25,6ra igo da.



2.5. Murriztu da familien eta zaintzaileen gaineko presioa

Orokorrean, behatutako joera horiei esker, txikiagotu egin dira mendekotasun-egoerei lotutako familia-kargak edo karga pertsonalak. Aldeko dinamika hori honako alderdi hauetan behatu dugu:

- * Behera egin du mendeko pertsonak etxean zaintzen dituzten 15 urte edo gehiagokoen proportzioak (2010eko % 5,3tik 2014ko % 4ra; eta 2006ko % 4,4aren azpitik kokatu da).
- * Talde batetik bestera zenbait diferentzia egon arren, 2010-2014 aldian beheranzko joera behatu dugu ere zaintza-lanari lotutako kargetan. Behera egin du familia-bizitzako tentsio garrantzitsuek zaintzaileengan duten eraginak, bai eta gizarte-, hezkuntza- edo lan-bizitza mugatzeko premiak ere.
- * Jaitsiera behatu dugu mendekotasun-egoerei lotutako aparteko gastuak dituzten etzekoen unitateen proportzioan (2006an % 10 izan zen; 2010ean, % 9,6; 2014an, % 8,4); fenomeno hori etxe barruko arretarako gastu-premiek izandako beherakadarekin lotuta dago. Aldiz, aipatu premiek gora egin dute etzekoen unitatetik kanpo bizi diren pertsonen zainketari dagokionez.

Edonola ere, krisia dela eta, mendeko pertsonen arretari lotutako aparteko gastuen eragina handiagoa da 2014an, etzekoen unitateentzat eta arreta jasotzen duten pertsonentzat.

2.6. Behera egin dute bizitzako premien estalduraren inguruko estalduraren asegabetasun-adierazleek.

Joera horri eta beste batzuei esker –esaterako, mendekotasun berezia dutenentzako muga arkitektonikoen eraginaren murrizketa– behera egin dute asegabetasun-adierazleek. Mendekotasun moderatua dutenen artean eta arreta pribatua/partikularra eskuratzen dutenen artean da handiagoa asegabetasuna.

3. Talde jakin batzuen kasuan izan ezik, harreman pertsonaletako eta gizarte-harremanetako arazoek ez dute okerrera egin; modu horretan, murriztu da atzerritarrek hautemandako gizarte-bazterketa.

3.1. Behera egin dute familia-banantzearen arloko arazoek

2006 eta 2010 urteen artean arazoon eragina ‰ 7,5etik ‰ 8,5era igo zen EAeko biztanleen artean. 2014an, aldiz, minimoa lortu du adierazleak: ‰ 6,2.

3.2. Egonkortu da portaera- edo jarrera-arazoen eragina, nahiz eta 35 urtetik beherakoen artean okerrera egin duen.

6 urte edo gehiago dituzten EAeko biztanleen artean, aipatu arazoon eragina egonkortzen ari da. 2014an ‰ 6,5era iritsi da; hala, 2006ko ‰ 4,6 gainditzen badu ere, 2010eko ‰ 6,8 baino apur bat txikiagoa izan

da. Horren aurka, beste talde batzuetan goranzko joera behatu dugu argi eta garbi. Esaterako, 35 urtetik beherakoen artean oso nabarmena izan da.

3.3. Bakardade- eta tristura-arazoen eraginak aurreko urteetako balioei eutsi die.

Bakardadeak eta tristurak eragindako arazoek egonkortasun handia dute erakutsi dute. 2006-2014 aldian, EAEko biztanleen % 18,3 eta % 18,7 artean mantendu dira. Aurkako egoeran, 45-64 urteko pertsonen artean goranzko joera erakutsi du bakardadeak. Modu berean, gizonezkoen artean ere areagotu dira arazook.

3.4. Familia arloko arretarik eza/bazterketa, jazarpena eta indarkeria bezalako arazoon eragina zertxobait murriztu da

EAEko biztanleen % 2,3k honako arazo hauetako bat sufritzen du: familia arloko arretarik eza/bazterketa, edota jazarpena eta indarkeria gizarte-ingurunean. 2010. urtean % 2,7ra igo ostean, 2006ko balioetara itzuli da arazoon eragina.

Aitzitik, 25 urtetik beherakoen artean edota 35-44 urte artekoen artean, 2006tik gora egiten ari da eragina. Eta 25-34 urtekoen artean ere, adierazleak gora egin du berriro ere 2014an, 2006 eta 2010 bitartean jaitsi ondoren.

3.5. Gizarte-bazterketaren pertzepzioa nabarmen murriztu da atzerritarren artean

Modu horretan, 2006-2010 aldian % 6,5etik % 9,6ra igo ondoren, 2014an % 2ra murriztu da bazterketa-arazoak dituzten EAEko biztanleen proportzioa. Dinamika hori atzerritarrek bizi duten egoeran hautemandako aldaketa handiarekin erlazionatuta dago. Hala, 2006-2010 aldian % 101,5etik % 128,9ra igo ziren hautemandako bazterketa-arazoak. 2014an, berriz, % 23,6ra jaitsi dira.

EMAITZA NAGUSIAK

2014ko GZEE-GPIaren emaitza nagusiak jarraian garatuko ditugun puntuetan laburbildu ditzakegu.

1. GIZARTE ARAZOAK ESKOLATZE PROZESUAN

1.1. 0-5 urteko adingabeen zaintza


Gora egin du haurtzaindegi eta ikastetxeen sisteman zaindutako 0-5 urteko adingabeen proportzioak

2006 eta 2010 bitartean behera egin ostean (% 74,4tik % 73ra), 2014an % 76,6ra iritsi da ikastetxeetan edo haurtzaindegietan zaindutako 0-5 urtekoen proportzioa.

Oinarrizko premien estalduran gabezia-arazoak (oinarrizko gabezia) dituzten etxeen unitateetan dauden adingabeen taldean, 2014an zentrootan zaindutako adingabeen proportzioa 2006koa baino nabarmen txikiagoa da oraindik. 2010-2014 aldian, proportzioa % 53,2tik % 62,4ra igo bada ere, 2006ko % 83,6tik oso urrun dago.

Adin-talde horretan, arretaren beheranzko joera batik bat bi urtekoen artean erregistratu da (2014an, % 73,6 izan da; 2006an, aldiz, % 84,7 izan zen). 2010-2014 aldian, biztanleria-talde horren arreta murriztu den bitartean, gora egin du haurtzaindegietan eta ikastetxeetan zaindutako bi urtetik beherako umeen proportzioak (% 30,8tik % 40,3ra, 2006ko % 33,3tik gora kokatuz).

1. grafikoa




Hala ere, garrantzi nahiko handia daukate oraindik 0-5 urte bitarteko umeak ikastetxeetan zaintzea eragozten duten zenbait faktorek

2014an, arretaren beherakada handiagoa izan den taldeetan, izugarritzko pisua du zuzeneko familia-arretaren aukerak. 2014an, bi urteko umeen % 17,8k jaso du arreta hori, 2006ko % 13,1aren aldean. Oinarrizko gabezia-arazoak dituzten etxekoen unitateetan dauden adingabeen kasuan, familia-arretaren aukera % 14,3tik % 26,8ra igo da 2006 eta 2014 urteen artean.

Azken lau urteotan, egonkor mantendu da familia-arretaren pisua bi urteko biztanleei dagokienez (2010ean % 17,4 erregistratu zen, eta 2014an, % 17,8). Aitzitik, behatu dugu adierazlea behera egiten ari dela oinarrizko gabezia-arazoak dituzten etxekoen unitateetan dauden adingabeen kasuan (2010ean % 40,2 izan zen; 2014an, berriz, % 26,8). Faktore horren eta beste batzuen eraginez, behera egin du familia-arretak 0-5 urte bitartekoen artean. Hala, 2006an eta 2010ean % 23 eta % 24 inguruan kokatu zen bitartean, % 17,9ra baino ez da iritsi 2014an. Familia-arretaren jaitsiera bereziki handia izan da bi urtetik beherako haurren artean: 2006ko eta 2010eko % 61 ingurutik 2014ko % 47,1era murriztu da.

Hala ere, ikastetxeetako zaintzak gora egitea eragozten duten beste elementu batzuk behatu ditugu 2010 eta 2014 urteen artean. Hain zuen, azken urtean, zentroetara sartzea eragozten duten gainerako faktoreek eragin handiagoa izan dute (lekurik ez izatea, prezioak, eskaintza-desdoikuntza...) 2006 eta 2010 artean % 3 baino gutxiago osatu zuten bitartean, 2014an arreta-ezaren % 5,5era iritsi dira.

2. grafikoa




Familia-arreta aukeratzen duten horiek alde batera utzita, ikastetxeetara sartzeko arazoak modu jarraituan ari dira gora egiten bi urtetik beherako artean (2006an % 5,9 izan zen; 2010ean, % 7,7; eta 2014an, % 12,6). Bestalde, bi urtekoen artean, gorakada handia gertatu da (2006an eta 2010ean % 2 edo txikiagoak izan ziren proportzioak, eta 2014an, berriz, % 8,6ra igo da). Gabeziarik ez duten etxekoen

unitateetan ere goranzko joera behatu dugun arren (2010era arte % 2 eta % 2,5 artean zegoen; 2014an, % 4,4ra iritsi da), oinarrizko gabezia-arazoak dituzten etxekoek unitateetan dauden adingabeek jasaten dute gehien arazoek eragina. Hala, kasu horretan, familiaren aukeraketarekin lotuta ez dauden arretarik ezaren arrazoiek arretarik ezaren % 2,1 baino ez zuten osatu 2006an. Ostean, 2010ean % 6,6ra iritsi ziren, eta 2014an, % 10,8ra iritsi dira.

Testuinguru horretan, leku faltak jaitziera nabarmena izan du ikastetxeetara sartzeko oztopo gisa. 2014an, familiaren erabakiari lotuta ez zeuden arretarik ezaren kausak leku falta ez beste arrazoi batzuen ondorio dira. Aipatu arazo horrek 3 urtetik beherakoek artean bildu du proportziorik handiena. Talde horretan, egiaztatu dugu 2010-2014 aldian lekurik ez izateak behera egin badu ere, gora egin duela arretarik ezak, gainerako arrazoiak ondorioz: 2014an % 9,6ra iritsi da, 2006ko eta 2010eko % 2,5aren aldean.

3. grafikoa




1.2. Gizarte-hezkuntzako arazoak, nahitaez eskolatzeko adina duten adingabeen artean

Sendotu da gizarte-dimentsio arazoek beharrezko joera, eskolatutako 6-16 urte bitartekoek artean

GZEE-GPIak gizarte-garrantzi handia duten edo izan dezaketen zenbait eskola-arazo barne hartzen ditu. Alde batetik, hezkuntza-egoeran beharrezko arazoak aintzat hartzen ditu, esaterako, eskola uztea, absentismoa eta eskola-atzeratasuna. Azken kasu horren barruan, egoera ez-larriak (urtebeteko atzeratasuna) eta larriak (bi urte edo gehiagoko atzeratasuna) bereizten dira. Bestetik, eskolan integratzeko hainbat arazo jasotzen ditu. Besteak beste, arazo larriak edo oso larriak (tratu txarrak, jazarpena edo bazterketa), bai eta integrazioa zailtzen duten beste arazo larri batzuk ere (adibidez, arazoak hizkuntzarekin, eta gaixotasunari edo desgaitasunari lotutako zailtasunak).

Eskuragarri ditugun datuen arabera, behera egiten ari da arazoon eragina, Euskadin eskolatutako 6 eta 16 urte bitartekoen artean. Hala, erreferentziazko biztanleon artean, 2008an % 8,6 osatu zuten arazook; 2010ean, % 6,9; eta 2014an, % 5,2.

4. grafikoa



Edonola ere, okerrera egin duten adingabekoak diren atzerritarrei lotutako adierazleek, nahiz eta alderdi larrienetan ez


Joera hori adingabekoen talde guztietan gertatu da, salbu eta atzerritarren direnen kasuan. Talde horretan, aztertutako arazoaren eraginak gora egin du 2014an, eta aztertutako denbora-epeko maximora iritsi da, alegia, % 15,1era. 2006-2010 aldian, ostera, % 14,6tik % 10,6ra murriztu zen. Proporzio horrek hiru aldiz baino gehiago gainditzen du tokiko biztanleei dagokiena (% 4,4).

Aitzitik, joerok aztertuz gero, ikusiko dugu eskolatutako atzerritarren artean behatutako okerragotze hori ez dagoela lotuta arazo larriekin. Zentzu horretan, 2010 eta 2014 urteen artean, honako arazo hauek oso gutxi areagotu dira (% 1,4tik % 1,7ra) eskolatutako atzerritarren artean: eskola uztea, absentismoa, bi urte edo gehiagoko eskola-atzeratasuna, jazarpena, tratu txarrak eta bazterketa. Kopuru hori eskolatutako tokiko biztanleena (% 0,6) baino puntu bat handiagoa bada ere, 2006ko % 10,3tik oso urruti dago oraindik.


Egiaz, joera eta diferentzia horiek lotuta daude, alde batetik, eskola-atzeratasun arinei, eta, bestetik, eskolan integratzeko arazo larriei. Alderdi larriak ez badira ere, gizarte-diferentzia handiak erakusten jarraitzen dute.

Urtebeteko eskola-atzeratasunari dagokionez, ia bost puntuko diferentzia erregistratu da 2014an, atzeritarren eta tokikoen artean arazoak duen eraginari dagokionez (hurrenez, hurren, % 8,9 eta % 3,7). Eta hori lotuta dago 2006tik behatzen ari garen joera negatiboarekin. Izan ere, eskola-atzeratasuna gora egiten ari da adingabe atzeritarren artean: 2006an, % 4,2 izan zen; 2010ean, % 6,5, eta 2014an, % 8,9. Arazo horiei hezkuntza-egoerari lotutako beste arazo larriago batzuk gehitzen badizkiogu (eskola uztea, absentismoa eta bi urtetik gorako eskola-atzeratasuna), ikusiko dugu arazoak dituzten adingabe atzeritarren proportzioa % 9,5era iritsi dela 2014an; hori 2006ko % 7,4 baino handiagoa da, bai eta 2010eko % 6,5 baino handiagoa ere (urte horretan minimora lortu zen).

5. grafikoa



6. grafikoa




Atzerritarrengan, gainera, eragin handia dute beste arazo batzuek, esaterako, hizkuntzarekin edota gaixotasun edo desgaitasun batekin lotutakoek. 2014an, eskolatutako adingabe atzerritarren % 4,5ak du mota horretako arazoren bat, tokiko biztanleen % 0,1aren aldean. Arazoon eragina epe luzera ari da areagotzen: 2006an, arazook % 0,1 osatu zuten, eta 2010ean, % 2,7.

Hezkuntza-egoerarekin lotutako arazoak eta eskola-atzeratasunei dagokienez, okerrera egin du ere gabezia ekonomikoa duten etxeen unitateetan dauden adingabeen egoerak.

Gizarteratze-adierazleek okerrera egitea (kasu honetan, hezkuntza-egoerarekin lotutakoak: eskola uztea, absentismoa eta mota guztietako eskola-atzeratasuna) eragiten duen bigarren faktorea etxeen unitateetako gabezia-egoerak dira.

7. grafikoa



Kasu horretan, arazoon eraginak gora egin du oinarrizko gabezia duten etxeen unitateetan dauden adingabeen artean; halaber, 2010-2014 aldian handiagoa izan da hazkunde hori. Atzerritarren artean, aipatu epe horretan 3,2 puntu areagotu da adierazlea (% 6,9tik % 10,1era), gabeziarik ez duten etxeen unitateetan dauden adingabeen artean 2,4 areagotu den bitartean (% 6,2tik % 8,6ra). 2010-2014 aldian ere, tokiko biztanleen artean 0,4 baino ez da hazi adierazlea. Edonola ere, 2006ko proportzioa baino askoz handiagoa da hori (% 12,6, % 7,2aren aldean), eta, gainera, bilakaera zeharo desberdina da oinarrizko gabeziarik ez duten etxeen unitateetan dauden adingabeenarekin konparatuta. Izan ere, talde horretan baino ez da 2014ra arte luzatu hezkuntza-egoerari lotutako arazoaren beheranzko joera: 2006an, adingabeen % 6,3k zituen arazoak; 2010ean, % 4,6k, eta 2014an, % 2,7k.

Oinarrizko gabezia duten adingabeekin jarraituz, nabarmendu beharra dago 2014an gora egin duela hezkuntza-egoerari lotutako arazoaren eragina, tokiko biztanleen artean (% 12,6 izan da, atzerritarren artean % 10,1 izan den bitartean). Guztiz aurkakoa gertatzen da gabeziarik gabeko adingabeen kasuan: % 2,7 izan da, atzerritarren kasuan % 8,6 erregistratu den bitartean.




2. LANERATZE ARAZO BEREZIAK

Langabeziaren kronifikazioa dela eta, izugarri areagotu da egiturazko laneko bazterketa


Zalantzarik gabe, 2014ko GZEE-GPlak jaso duen gizarte-narriadura nagusia laneratze-arazo berezien dinamikarekin lotutakoa da. 2014an, EAEn bizi diren 16-64 urte bitarteko 120.109 pertsonak adierazi dute estatistika-eragiketan barne hartutako laneratze-arazoren bat dutela. Biztanle-talde horren % 8,5 da hori; hala, 2006ko % 3,7arekin eta 2010eko % 2,9arekin alderatuta, nabarmen hazi da adierazlea. Kopuru absolutuetan, proportzioa % 122,9 areagotu da 2014an, 2006ko 53.885 pertsonekin konparatuta; eta 2010eko 40.862 biztanleekin alderatuta, berriz, % 193,9.

Adierazitako hazkundera langabeziaren kronifikazioaren ondorio da, edota langabezia eta noizbehinkako enplegu marjinalak konbinatzearen ondorio. Modu horretan, 2014an, laneratze-arazo bereziak dituzten biztanleen zailtasun nagusiak langabeziaren kronifikazioa eta azpiokupazioa –noizbehinkako lan marjinalekin– dira. 109.865 pertsona daude egoera horretan, 2010eko kopurua (26.047) baino lau aldiz handiagoa, eta, halaber, 2006ko kopurua baino handiagoa ere (24.680). Beraz, EAEko 16-64 urte bitarteko biztanleen artean, 2006 eta 2010ean % 1,7-% 1,8 osatzetik 2014an % 7,8 osatzera igaro dira egoera horretan dauden pertsonak.

8. grafikoa



9. grafikoa



Goranzko joera handiena honako talde honetan behatu dugu: etxekoen unitateen buru izanik, duela 18 baino gehiago langabedian edota azpiokupazio kronikoan dauden pertsonak. 2006an 10.855 biztanle zeuden egoera horretan: aldiz, 2010ean 9.455era igo zen adierazlea, eta 2014an, 60.179ra. Nahiz eta zertxobait txikiagoa izan, hazkundera gertatu da ere etxekoen unitateen buru izanik, duela 30 hilabete baino gehiago langabedian edota azpiokupazio kronikoan dauden pertsonen kasuan. 2006an 13.825 biztanlek zuten arazo hori: aldiz, 2010ean 16.592ra igo zen adierazlea, eta 2014an, 49.686ra.

Egoera zeharo desberdinean, 2010 eta 2014 urteen artean behera egiten jarraitu du lan-baimenik ez duten atzeritar aktiboen kopuruak: 2006ko 24.593tik 2010eko 12.151era igaro ostean, 2014an 5.062 baino ez da izan; hala, 16-64 urte bitarteko EAEko biztanleen % 0,4 besterik ez du osatu. Era horretan, laneratze-arazo bereziak dituzten biztanleek bilakaera hauxe izan dute: 2007an % 45,6 osatu zuen; 2010ean, % 29,7, eta 2014an, % 4,2 baino ez.

Laneratze-arazoak dituzten gainerako pertsonak (5.182) enplegu berezi edo babestuaren esparruan sartzen diren biztanleak dira (laneratze-programa bereziak, laneratze-enpresak edota enplegu-zentro bereziak).


Batez ere tokiko biztanleak eta 25-54 urte artean dituztenak daude egoera horretan, eta gizonezkoak dira nagusi

Laneratze-arazo berezien % 59,4 45 urtetik beherakoei dagozkie. Baina egoera horrek batik bat 25-54 urte bitarteko biztanleei eragiten die, arazoon % 81,1 talde horretan biltzen baitira. 25 eta 44 urte bitartekoen kasuan, talde horretako % 10 baino gehiago egoera horretan egoteko arriskuan dago. Maximoa 35 eta 44 urte bitartekoen artean erregistratu da: % 11,1. Bestalde, 25 eta 34 urte bitartekoen kasuan, proportzioak % 10,6 osatu du. 45-54 urtekoei dagokienez, % 8,7an kokatu da arriskuaren adierazlea, eta % 6,5ean, berriz, 55-64 urte bitartekoei dagokienez. Adierazlea % 5aren azpitik dagoen talde bakarra 16-24 urte bitartekoena da, % 2,6 baino ez baitu osatu.


Laneratze-arazo bereziek gizonezkoiei eragiten diete gehien (% 9,9); emakumezkoen artean, berriz, proportzioa % 7,2 izan da. Laneratze-arazo bereziak dituzten biztanleen % 57,1 gizonezkoak dira.

Laneratze-arazoek eragin oso handia dute oraindik ere atzeritarrengan. Biztanle atzeritarren % 27,3k mota horretako arazoren bat du, biztanleria nazionalaren % 7,2aren aldean. Kopuru horrek 2010eko % 15,9 gainditzen badu ere, aztertutako egoeren eragina 2006ko % 31,4 baino txikiagoa da. Urte horretan, atzeritar ugari ez zuten lan-baimenik. Aldiz, tokiko biztanleen artean, 2014ko proportzioak (% 7,2) 2006an eta 2010ean erregistratutakoak gainditzen ditu (bi urteotan, % 2 inguruan kokatu zen). Horrek neurri batean azaltzen du tokiko biztanleriaren pisu erlatiboaren hazkundera, laneratze-arazo bereziak dituztenen taldean: 2014an % 78,8an kokatu da, 2006an % 51,5 eta 2010ean % 60,9 lortu ostean.

10. grafikoa



11. grafikoa



Gora egin dute lan normalizatuaren munduko bazterketa-adierazleek, berau sufritzen duten pertsonen artean

Izan ere, laneratze-arazo bereziak dituztenen kopuruak gora egiteaz aparte, nabarmen areagotu dira ere lan-merkatuan sartzeko eurek dituzten zailtasunak. Arazo hori duten biztanleen taldean, krisi ekonomikoak, arlo sozialean, beherakada handia eragin du oraindik ere lanen bat eskuratzeko aukera – nahiz eta oso txikia izan– duten pertsonen proportzioan. Inkesta egiten den unean lanarekin kontaktua daukaten talde horretako pertsonen proportzioak bilakaera hauxe izan du: 2006ko % 57,9tik 2010eko % 26,1era igaro zen, eta 2014an, berriz, minimoa lortu du, % 10,8.

Ildo berean, beherakada behatu dugu ere azken urtean gutxienez sei hilabetez lanean ibili diren eta laneratze-arazo bereziak dituztenen proportzioan: 2006an % 40 izan zen; 2010ean, % 24,7, eta 2014an, % 9,4 baino ez da izan. Bestetik, gorakada handia erregistratu dugu azken hamabi hilabeteetan enpleguarekin inolako kontakturik izan ez duen biztanleriaren proportzioan: 2006an % 35,9ra iritsi zen; 2010ean, % 67,2ra, eta 2014an, % 84,1era.


Horiek horrela, duela hiru urte baino gehiago lan erregularizatu bat izan duten pertsonen proportzioak bilakaera hauxe izan du: 2006ko % 24,3tik 2010eko % 30,3ra, eta ostean, 2014ko % 39,2ra igaro da.

Alabaina, aztertutako pertsonen % 28,6 besterik ez dago ekoizpen-sistematik izugarri aldentuta; egoera horretan daude inolako lan-esperientziarik ez duten biztanleak, edota duela bost urte baino gehiago lan erregularizatu bat eduki dutenak. Proportzio hori 2006an eta 2010ean erregistratutakoa baino askoz txikiagoa da (% 50 inguruan kokatu zen).

Izan ere, 2014an lana aktiboki bilatzen ari direnen ehunekorik handiena erregistratu da: % 83,2. Horretaz aparte, adoragabetze-egoerek edota lana bilatzeko modu ez-aktiboek % 4,6 baino ez dute osatu. Lana bilatzen ez dutenen edota bilaketa-modu faltsuak gauzatzen dituztenen proportzioa % 12,2ra baino ez da iritsi.

Hortaz, datuok erakusten dute biztanle ugari (120.000 baino gehiago) lanera sartzeko izugarriko zailtasunak dituztela; pertsona horiek, normalean, esperientzia izan dute, aurretik, lan erregularizatu batean (% 59,9, duela bost urte baino gutxiago), eta % 83,2 lan-bilaketa aktiboa gauzatzen ari dira.

12. grafikoa



Egiturazko laneko bazterketa estuki lotuta dago gabezia ekonomikoarekin


Eskuragarri ditugun datuek adierazten dutenez, lotura handia dago, batetik, langabezia-kronifikazioaren eta bestelako muturreko lan-ezegonkortasun egoeren, eta, bestetik, gabezia ekonomikoaren artean. Modu horretan, oinarrizko gabeziarik gabeko etxeoen unitateetan bizi diren 16-64 urte bitarteko pertsonen % 4,9k laneratze-arazo bereziak ditu. Aldiz, gabezia hori duten etxeoen unitateetan, % 34,8ra iritsi da proportzioa. Izan ere, 2014an, laneratze-prozesuetan hautemandako arazo berezien % 49,6 oinarrizko gabezia dagoen etxeoen unitateetan bizi diren pertsonekin erlazionatuta daude.

Datuok adierazten dutenaren arabera, laneratze-arazo berezietako batzuk nolabaiteko lan-egonkortasuna duten etxeen unitateetan garatzen dira; hala, egoera horretan dauden % 29,6 lan egonkorra duen pertsona bat gutxienez ere dagoen etxeen unitateetan bizi dira. Nolanahi ere, aztertutako kasu gehienetan, etxeen unitateetan lan-ezegonkortasuneko egoerak edota jardueraren esparruko de facto irteerak nagusitzen dira. Modu horretan, aintzat hartutako laneratze-arazo % 59,8 aktibo dauden kideetako bakar batek ere lan egonkorrik ez duen etxeen unitateetan gertatzen dira, eta % 10,6, berriz, kide guztiak jada aktibo ez dauden etxeen unitateetan.

Gaur egun, oso ohikoa da laneratze-arazo bereziak egotea, aktibo dauden kideak izan arren, beroriek lan egonkorrik ez duten etxeen unitateetan. 2014an, mota horretako etxeen unitateetan bizi diren 16-64 urte bitarteko % 30,5ak du arazo hori. Beraz, argi dago biztanleria-talde hori lan-bazterketako arrisku handian dagoela.


Ostera, kideren bat lanean ari den etxeen unitateen kasuan, egoera oso bestelakoa da. Izan ere, 2014an, 16-64 urte bitarteko biztanleen % 3,3k baino ez ditu laneratze-arazo bereziak. Eta aurreko urteetako egoerarekin alderatuta ere, diferentzia handiak behatu ditugu biztanleria-talde horretan, zeinetan etxeen unitate gehienetan, aktibo izan arren lan ezegonkorrik ez duten kideak bizi baitira. 2014an, arazok % 30,5era iritsi diren bitartean, 2006an % 13 baino ez ziren izan, eta 2010ean, % 19,5.

13. grafikoa





14. grafikoa




3.- MUGAPENA ETA MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK

Nahiko egonkor mantendu da mendekotasunaren eta mugapenaren eragina

EAE n bizi diren pertsonen % 10,9k adierazi du osasun-arazo batek edo adin handiak eragindako mugapen funtzionalen bat duela. Mugapenon eragina apur bat baino ez da igo: 2006an % 10,5 izan zen, eta 2010ean, % 10,8. 2014an, 235.862 pertsonari eragin dizkiote arazook. Horrek esan nahi du 2006ko 225.515 pertsonekin alderatuta, % 4,6 igo dela proportzioa.

2014an, kasuen % 49,7an, kontuan hartutako mugapenek mendekotasun bereziko egoera bat eragiten dute. Guztira 117.340 pertsona daude egoera horretan; hau da, EAEko guztizko biztanleriaren % 5,4. Aurreko urteekin konparatuta, zertxobait jaitsi da balioa: 2006an, % 5,5 izan zen, eta 2010ean, oster, % 5,7. Mendekotasun berezi arinen eragina pixkanaka murrizten ari den bitartean (2006-2014 aldian, % 2,6tik % 2,4ra igaro dira), aldakuntza handiagoak gertatzen ari dira mendekotasun moderatu, larri eta erabatekoen kasuan: 2014an % 3 osatu dute; beraz, 2006ko % 2,8tik gora kokatu dira, baina 2010eko % 3,2tik behera.

15. grafikoa




Mendekotasun bereziko egoerek adinaren arabera duten eraginari helduz gero, ikusiko dugu 2006-2014 aldian, bilakaerak ez duela aldakuntza handirik izan orokorrean. Hori hala izanagatik ere, 2014an mendekotasun-egoeren baliorik txikiak lortu dira, batetik, 35 urtetik beherako kasuan (% 0,9 osatu dute, 2006an eta 2010ean, hurrenez hurren, % 1,3 eta % 1,4 izan ziren bitartean), eta, bestetik, 65 eta 74 urtekoen artean. Gainera, bigarren talde horretan, beherakada oso handia izan da. Izan ere, adierazlea 1,5 puntu baino gehiago murriztu da 2014an (% 6,7), 2010ean % 8,5era iritsi ostean.



Halaber, 75 urtetik gorako biztanleen kasuan ere asko murriztu da adierazlea, 2010-2014 aldian % 34,6tik % 32,4ra jaitsi baita. Hala ere, oraindik ere 2006an lortutako % 31,3tik gora dago. Horren aurka, 35-64 urtekoen taldean, 2014ko balioak 2006 eta 2010 urteetako balioen inguruan edo horietatik zertxobait gorago kokatu dira.


16. grafikoa



Erabateko mendekotasun bereziaren eta mendekotasun berezi larri edo moderatuaren eraginean soil-soilik arreta biltzen badugu, ohartuko gara 35 urtetik beherakoen artean ere behera egin duela proportzioak (2014an % 0,4 izan da, 2006an eta 2010ean % 0,6 eta % 0,8 artean erregistratu ziren bitartean). Kasu horretan, hobekuntza 55-64 urte bitarteko pertsonengana ere iritsi da (% 1 erregistratu da 2014an, 2006an eta 2010ean % 1,5aren inguruan kokatu zen bitartean). Aitzitik, 35-54 urtekoen artean apur bat okerrera egin du egoerak (2006an eta 2010ean, % 0,7-% 0,9 bitartean kokatu zen adierazlea, eta 2014an % 1,2ra iritsi da). Bestalde, 65-74 urtekoen taldean, gutxienez ere mendekotasun moderatua duten pertsonen proportzioak aurreko urteetako balioei eutsi die, % 3,6 eta % 3,7 artean kokatu baita.

Ezein kasutan ere, ezin dugu esan epe luzera aldakuntza handirik gertatu dela. 2010etik 2014ra bitartean, behera egin badu ere erabateko mendekotasunaren eta mendekotasun larri edo moderatuen proportzioak (% 22,5etik % 22ra), oraindik ere 2006koa (% 19,1) baino ia hiru puntu handiagoa da.

17. grafikoa



Behera egin du kanpoko arretaren erabilerak mendekotasun berezia duten biztanleen artean, nagusiki zerbitzu publiko, pribatu zein partikularrenen erabilera ere murriztu delako


2014an, mendekotasun berezia dutenen % 47,6k etxeko unitate kanpoko laguntzak edo zerbitzuak baliatu ditu, bai etxetik kanpoko zentroetan bai etxeko laguntza moduan, hirugarren pertsonen aldetik – senideak, bizilagunak edo lagunak barne¹. GZEE-GPIa egiten denetik lortu den baliorik txikiena da hori, 2006ko % 53,7aren azpitik ere kokatu baita. Beherakada are handiagoa da 2010ean –mendekotasuna babesteko programak martxan jarri ostean– lortutako balioarekin (% 58,9) alderatzen badugu.

Espero genuen bezalaxe, kanpoko laguntza-zerbitzuen erabilerak beherakada handia izan du mendekotasun arina duten edota behar besteko autonomia duten pertsonen kasuan. Zehazki, 2006-2010 aldian % 45,3tik % 47,8ra igo ondoren, 2014an % 33,6ra murriztu da kanpoko zerbitzuen erabilera.

Joera horixe berbera behatu dugu erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria duten pertsonen artean; oso deigarria iruditu zaigu hori. Izan ere, 2006-2010 aldian % 69,4tik % 71,7ra igo zen kanpoko zerbitzuen erabilera. Ostera, 2014an % 57,4ra murriztu da. Goranzko joerari eutsi dion talde bakarra mendekotasun moderatua duten pertsonena da. Kasu horretan, kanpoko zerbitzuen erabilera honela hazi da: 2006an % 48,3 izan zen; 2010ean, % 57,1, eta 2014an, % 59,6. Horiek horrela, 2014an, mendekotasun moderatua duten pertsona gehiagok jo dute kanpoko edo familia barruko baliabideetara zein baliabide publiko edo pribatu etara, erabateko mendekotasuna edota mendekotasun larria dutenek baino.




18. grafikoa



Kanpoko baliabideen erabilera izandako beherakada zerbitzuen sisteman da bereziki deigarria, publiko/itunduetan zein pribatuetan. Azken talde horretan, etxean laguntzeko xedearekin kontratatutako langileak ere sartzen dira.

Esparru publiko eta itunduaren kasuan, zerbitzuon erabilera etengabe ari da txikiagotzen, 2006. urteaz geroztik: urte horretan % 20,7 izan zen; 2010ean, % 15,4, eta 2014an, % 13,4. Beherakada orokorra bada ere, erabateko mendekotasuna edo larria duten pertsonen artean izan da handiagoa. Kasu horretan, 2006-2014 aldian % 31,6tik % 18,6ra jaitsi da zerbitzu publiko edo itunduak baliatu dituzten pertsonen proportzioa, nahiz eta beherakadarik handiena jada 2010. urtean erregistratu zen (% 20,1). Mendekotasun moderatuari dagokionez, 2006ko % 19,8tik 2014ko % 15,5era murriztu da. Bestalde, mendekotasun arina duten edota autonomoak diren pertsonen kasuan, balioak % 13,7tik % 8,2ra jaitsi dira.

19. grafikoa




¹ Atal honetan, gogoratu behar dugu GPIaren datu guztiak etxebizitza partikularretan bizi diren biztanle ez-instituzionalizatuak dagozkiela.

Amaierako emaitza antzekoa da zerbitzu pribatu edo partikularren erabilerari erreparatzen badiogu. Hala ere, kasu horretan, beherakada 2010etik 2014ra baino ez da gertatu. Era horretan, zerbitzu-mota horren erabilera % 19,3tik % 26,9ra igo zen 2006-2010 aldian; 2014an, berriz, % 17,5era murriztu da, 2006ko balioaren azpitik kokatuz ondorioz.

Prozesu hori mendekotasun-egoera guztietan hauteman badugu ere, aipatzekoa da, berriro ere, erabateko mendekotasuna edo larria duten biztanleen artean beherakada handia gertatu dela. Izan ere, kasu horretan baino ez da izan 2014ko balioa 2006koa baino askoz txikiagoa: 2006an % 26,6 izan zen, eta 2014an, % 21,3. 2010ean, berriz, maximoa lortu zen, % 32,7. Mendekotasun moderatua duten biztanleen artean, 2014ko % 19,2 2006ko % 18,3 baino handiagoa da, baina, aldiz, 2010eko % 27,9 baino askoz txikiagoa. Beste alde batetik, mendekotasun arina duten edota autonomoak diren biztanleen artean, zerbitzu pribatuen 2014ko erabilera (% 13,7), ez da asko aldentu 2006ko % 14,8tik; baina bai, ordea, 2010eko % 21,1etik.

20. grafikoa




Kanpoko senideek emandako babesa aztertuz gero, egonkortasun handiagoa dagoela ikusiko dugu. Mendekotasuna dutenen % 16,9k laguntza horretara jo du 2014an: 2006an lortutako balioaren antzekoa da (% 16,8); aldiz, 2010. urtearekin alderatuz gero (% 18,3), diferentzia handiagoa da.

Hala ere, joera hori erabateko mendekotasuna edo larria duten pertsonen artean baino ez dugu hauteman. Talde horretan, kanpoko senideengana jo dutenek % 19,4 osatu dute 2014an. Nahiz eta 2006an lortutako balioaren antzekoa izan (% 19,1), 2010eko balioarekin alderatuz gero (% 20,9), handiagoa da diferentzia. Aurkako egoeran, mendekotasun arina duten edota autonomoak diren

pertsonen kasuan, behera egin du kanpoko senideengana jo dutenen proportzioak: 2006an eta 2010ean % 17 inguruan kokatu bazen ere, 2014an % 11ra jaitsi da.

Portaerarik bitxiena mendekotasun moderatua dutenen artean behatu dugu. Biztanle horien kasuan, etengabe gora ari da kanpoko senideen laguntza baliatzen dutenen proportzioa. Aitzitik, 2006-2010 aldian hazkundera txikiagoa izan zen bitartean (% 13tik % 14,8ra), 2014an % 25,2ra iritsi da adierazlea.

21. grafikoa




Mendekotasun moderatua dutenen kasuan izan ezik, kanpoko baliabideen erabilerak berekin ekarri du arreta-orduek gora egitea

2010-2014 aldian, kanpoko zerbitzuak eta baliabideak baliatu dituztenen proportzioa murriztu den bitartean, gora egin du asteko batez besteko arreta-orduen kopuruak. 2006an eta 2010ean, arreta-orduek 32,5 inguruan kokatu baziren ere, 2014an 35era iritsi gara. Gorakada hori lotuta dago, batetik, mendekotasun arina duten edo autonomoak diren pertsonen artean behatutako goranzko joerarekin (13,3 ordu 2006an; 14,1, 2010ean, eta 19,6, 2014an), eta, bestetik, erabateko mendekotasuna edo larria duten pertsonen artean behatutako gorakadarekin. Bigarren talde horretan, 2006-2010 aldian asteko batez besteko arreta-orduek 50,7tik 46,5era jaitsi ondoren, berriro ere hazi dira 2014an, 51,2ra iritsiz.

Alabaina, salbuespen bat hauteman dugu: mendekotasun moderatua duten biztanleak. Biztanleria-talde horretan, asteko batez besteko arreta-orduek 2006az geroztik ari dira murrizten. Urte horretan, 34,5 izan ziren; 2010ean, 29,1; azkenik, 2014an 26 izan dira.


22. grafikoa



Aipatutako beheranzko joeren aurka, gora egin du mendekotasunari aurre egiteko sistemaren prestazioen erabilerak

Kanpoko arretaren erabilera murriztu den bitartean, gorakada gertatu da mendekotasunari aurre egiteko sistemaren prestazioak baliatzen dituzten etxeen unitateetan dauden mendekotasun bereziko pertsonen proportzioan. 2010-2014 aldian, % 20,7tik % 25,6ra igaro da. Hala, erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria dutenen artean, % 36,6tik % 47,1era hazi da; mendekotasun moderatua dutenen artean, aldiz, % 13,6tik % 20,7ra. Mendekotasun arina duten edo autonomoak diren pertsonen artean, hazkundea txikiagoa izan da: % 8,8tik % 10,6ra.

23. grafikoa




Behera egin du mendekotasuna duten biztanleek eguneroko bizitzako premien estalduraren inguruan duten asegabetasunak. Mendekotasun moderatua dutenek eta arreta pribatua/partikularra jasotzen dutenek erakutsi dute asegabetasun handiagoa.

2010-2014 aldian behera egin du eguneroko bizitzako premiei aurre egiteko jasotako arretaren inguruko asegabetasunak. Asegabetasunen bat –txikia bada ere– adierazi duten pertsonen proportzioa 2010eko % 15,8tik 2014ko % 14,2ra jaitsi da. Hala ere, oraindik ere 2006ko % 11,6 baino nabarmen handiagoa da. Asegabetasun handiaren edo oso handiaren eraginak antzeko joera erakutsi du: aipatu denbora-epean, % 6,4tik % 4,5era murriztu bada ere, 2006ko proportzioa (% 2,9) nabarmen gainditzen du. Hori guztia gorabehera, asegabetasun horiek balioak oso txikiak dira oraindik.

Behatutako joera hori orokorra da mendekotasun larrienen kasuan. Hala, erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria duten biztanleen artean, aipatzekoa da 2010-2014 aldian asegabetasun handian edo oso handian gertatutako beherakada, % 9,5etik % 5,5era. Modu horretan, 2006ko proportzioaren azpitik ere kokatu da (% 5,3 izan zen). Beste alde batetik, mendekotasun arina duten edo autonomoak diren pertsonen kasuan, asegabetasun-maila gorantz ari da, eta bestelako mendekotasunak dituztenen adierazleetatik gertu kokatu da: 2014an, asegabetasun handia edo oso handia % 3,8ra iritsi da aipatu talde horretan, eta % 5era, berriz, gutxienez ere mendekotasun moderatua duten pertsonen artean. Beste alde batetik, asegabetasunak, guztira –txikiak ere barne– % 13,3 osatu dute aipatu taldean, 2014an; % 13,9ra iritsi da, aldiz, erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria dutenen artean, eta % 16,9ra, mendekotasun moderatua dutenen artean. 2006an, arazo horrek eragin handiagoa zuen erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria zutenen artean. 2010ean eta 2014an, ostera, mendekotasun moderatua duten pertsonen erakutsi dute asegabetasun handiena.

24. grafikoa




Oharra: Asegabetasun handiaren barruan asegabetasuna handia zein oso handia den kasuak barne hartu dira. Asegabetasunak, orokorrean, asegabetasuna txikia den kasuak ere barne hartzen ditu.

Mendekotasun moderatua duten biztanleen artean, asegabetasun-maila handiena hainbat alderdi deigarriekin lotuta dago. Alde batetik, zerbitzu publiko eta pribatuen erabilera hautemandako beheranzko joerarekin erlazionatu daiteke, zeina 2010-2014 aldian areagotu egin baita. Beste alde batetik, gainerako taldeetan behatutako bilakaeratik aldentzen da, bi alderditan. Bateko, gora egiten ari da kanpoko senideen arretaren beharra (gainerako taldeetan, 2010-2014 aldian behera egin du horrek), eta, besteko, behera egiten ari da astean batez beste jasotako arreta-orduen kopurua (gainerakoetan, goranzko joera behatu dugu). Mendekotasun moderatua dutenek, gainera, askoz gutxiago baliatzen dituzte Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren prestazioak, erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria dutenek baino.

Hala ere, zenbait diferentzia behatu ditugu mendekotasun moderatua duten pertsonen dagokionez; horiek ere euren asegabetasun handiagoa azaltzeko balio digute. Zentzu horretan, erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria duten biztanleekin konparatuta, mendekotasun moderatua dutenek pisu erlatibo handiagoa dute, bai 35-64 urtekoen artean (% 39,9, % 24,6aren aldean), bai gaixotasun fisiko kronikoak edota osteoartikularrak dituztenen artean (% 33,5, % 20,2aren aldean), bai eta oinarritzko gabezia-arazoak dituztenen artean ere (% 11,1, % 3,3aren aldean).


25. grafikoa



2010-2014 aldian, asegabetasun-mailak beheranzko joera erakutsi badu ere, salbuespen batzuk aipatu behar ditugu, jasotako arreta-motari dagokionez. Zentzu horretan, asegabetasuna –bai orokorrean bai asegabetasun handia– etengabe ari da gora egiten, arreta pribatua edo partikularra jasotzen duten pertsonen artean. Hala, asegabetasuna, orokorrean, etengabe igo da, 2006ko % 8,9tik 2014ko % 17,2ra. Asegabetasun handiari dagokionez, hazkundera % 3,6tik % 8,2ra bitartekoa izan da 2006-2014 aldian.

Horretaz aparte, kanpoko arretarik jasotzen ez dutenei erreparatuz gero, asegabetasunak behera egin du 2010etik 2014ra bitartean, % 4,6tik % 3,6ra. Azken proportzio hori aztertutako epean erregistratu diren txikienetako bat da. Hala ere, talde horretan bertan, modu jarraituan hazi da asegabetasuna, orokorrean – asegabetasun txikia barne–. 2006-2014 aldian, % 12,6tik % 14ra igaro da adierazlea.

26. grafikoa




Oharra: Asegabetasun handiaren barruan asegabetasuna handia zein oso handia den kasuak barne hartu dira. Asegabetasunak, orokorrean, asegabetasuna txikia den kasuak ere barne hartzen ditu.

Behera egin du muga arkitektonikoen eraginak, mendekotasun berezia duten pertsonen artean

2010-2014 aldian, behera egin du muga arkitektonikoen eraginak, mendekotasun berezia edota bestelako mugapenak dituzten pertsonen etxebizitzetan. Zehazki, mendekotasun berezia dutenen artean, % 21,5etik % 17,7ra jaitsi da; mugapenak izanik mendekotasun berezirik ez dutenen artean, aldiz, % 8,8tik % 5,4ra.

Etxebizitzako muga arkitektonikoen eragina erabateko mendekotasuna edo mendekotasun larria dutenen artean da handiagoa. Aitzitik, 2010etik 2014ra bitartean, talde horretan gertatu da beherakadarik handiena, % 28,9tik % 24,4ra. Beherakadarik txikiena, berriz ere, mendekotasun berezi moderatua duten biztanleei dagokie (% 17,6tik % 15,9ra).

27. grafikoa




Krisiaren urteetan, laneratze-ehunekoak ez du okerrera egin mugapena edo mendekotasuna dutenen artean. Hala ere, lanerako prestasun handiagoa dago, eta horrek langabezia eta laneratze-arazoak areagotzea eragin du

2010-2014 aldian gora egin du mendekotasun berezia eta osasunari lotutako bestelako mugapenak dituztenen laneratze-ehunekoak. Datua a priori harrigarria bada ere, kontuan hartu behar dugu Euskadiko enplegu-zentro berezien sistema oso dinamikoa dela. Lehenengo taldeari dagokionez, lanean ari diren 16-64 urte artekoen proportzioa % 18,5etik % 19ra igo da, nahiz eta oraindik ere 2006ko % 20,5aren azpitik egon. Beste mugapen batzuk dituztenen kasuan, laneratze-adierazleak maximoa lortu du 2014an. Zehazki, % 46,4an kokatu da, 2006an eta 2010ean % 43 eta % 44 artean zegoen bitartean.

Bilakaera horren aurka, mendekotasun berezirik ez osasunari lotutako mugapenik ez duten biztanleen artean behera egin du laneratze-adierazleak. 2014. urtean ere, laneratzearen kasuan diferentzia handiak daude talde batetik bestera: osasun-mugapenik ez duten 16-64 urte arteko biztanleen % 64,5 lanean ari dira; aldiz, mendekotasun berezirik ez duten baina mugapena dutenen artean, % 46,4 da laneratze-proportzioa, eta % 19 besterik ez, mendekotasun berezia duten pertsonen artean.

28. grafikoa




Edonola ere, mendekotasun berezia edota bestelako osasun-mugapenak dituzten biztanleen artean laneratzea hazi den bitartean, behera egin du langabezia-tasak. Hala, mendekotasun berezia duten biztanleen artean, langabezia-tasak bilakaera hauxe izan du: 2006an eta 2010ean, % 30 eta % 31,5 inguruan kokatu zen; 2014an, berriz, % 41,1era igo da. Eta laneratze-arazo bereziak dituztenei dagokionez, are handiagoa izan da gorakada: 2010eko % 13,6tik 2014ko % 25,7ra igaro da (2006an, % 15,4 baino ez zen izan).

Gainera, 2010-2014 aldian, hazkunde oso handia izan du ere langabeziari edo lan-bazterketari lotutako arazoen presentziak, mendekotasun berezirik ez duten baina bestelako mugapenak dituzten pertsonen kasuan. Modu horretan, 2006-2010 aldian % 19tik % 20,5era igo ondoren, langabezia-tasa % 32,1era igo da 2014an. Eta laneratze-arazo berezien proportzioari dagokionez, bereziki handia izan da hazkundera: 2006an eta 2010ean % 5 inguruan kokatu zen, eta 2014an % 18,8ra igo da.

Proportzio horiek guztiek nabarmen gaintzen dituzte gainerako biztanleria-taldeetan behatu ditugunak; hain zuzen, osasun-arazoei lotutako mugapenik edota mendekotasunik ez duten taldeetan. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar taldeotan ere, egoerak okerrera egin duela.


29. grafikoa



Bestetik, mendekotasun berezia duten eta osasunari lotutako bestelako mugapenak dituzten pertsonen artean areagotu dira langabeziari eta lan-bazterketari lotutako arazoak, nahiz eta laneratze-tasak hobera egin duen. Horren arrazoia da 2010-2014 aldian, nabarmen hazi dela jarduera-tasa.

Mendekotasun berezia duten pertsonen artean, jarduera-tasa 2010eko % 26,4tik 2014ko % 32,2ra igaro da, 2006ko proportzioa (% 30) ere gaindituta. Hazkundera are handiagoa izan da mendekotasun berezirik ez duten baina bestelako osasun-mugapenak dituztenen taldean. Kasu horretan, 2006an eta 2010ean % 54,4an kokatu zen adierazlea. 2014an, berriz, izugarrizko aktibazio-prozesua gertatu da, eta lan-merkatuan sartu dira pertsona ugari. Hala, % 68,4ra igo da jarduera-tasa, aurreko urteetan behatutakoa baino 14 puntu handiagoa den proportziara iritsiz.

30. grafikoa





4.- MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK ZAINTEA


4.1. Mendekotasun-egoerei lotutako aparteko gastuak

Areagotu da mendekotasun-egoerei lotutako aparteko gastuen murrizketa, baina soil-soilik etxe barruko arretan

2014an, biziagotu da mendekotasuna dutenei behar bezalako arreta ematearekin lotutako aparteko gastuen murrizketa². 2006tik 2010era bitartean, egoera horretan zeuden etxekeen unitateak % 10etik % 9,6ra jaitsi ziren. Beheranzko joera hori 2010-2014 aldian areagotu da, azken urte horretan % 8,4 baino ez baita erregistratu.

Beherakada hori erlazionatuta dago mendeko pertsonen etxekeen unitatearen barruan arreta emateari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekeen unitateen proportzioan izandako beherakada handiarekin. Adierazlea % 7,3 izan zen 2006an; % 6,1, 2010ean, eta % 4,5, berriz, 2014an. Aldiz, gora egin du etxekeen unitatetik kanpo bizi diren pertsonen arretari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekeen unitateen proportzioak. Hazkunderik handiena 2006-2010 aldian gertatu zen, % 3,2tik % 3,9ra igo baitzen. Maximoa, berriz (% 4), 2014. urtean lortu da.


31. grafikoa



Etxekeen unitateetako aparteko gastuak asko murriztu dira, eta, zalantzarik gabe, hori estuki lotuta dago mendekotasuna dutenentzako laguntza-sistemaren ezarpenak izandako eragin positiboarekin. Etxekeen

unitatean mendekotasun moderatua duten bi pertsona edo gehiago izateak eragiten dituen aparteko gastuen proportzioa % 51,4tik % 59,4ra igo da 2010 eta 2014 urteen artean. Nolanahi ere, proportzioa asko jaitsi da 2006. urtearekin alderatzen badugu, % 92,5 izan baitzen. Osasunarekin lotutako mugapenak edo mendekotasuna dituzten bestelako pertsonen kasuan, beheranzko joera hauteman dugu 2006tik aurrera, nahiz eta hain handia ez izan. Modu horretan, aparteko gastuak % 51,2tik % 41,2ra jaitsi dira, bestelako mendekotasun garrantzitsuak dituzten pertsonak dauden etxeen unitateen kasuan (mendekotasun berezia duten bi pertsona edo gehiago, edota gutxienez ere mendekotasun moderatua duen pertsona bat), eta % 13,4tik % 6,6ra, mendekotasun edo mugapen arinagoen kasuan.

32. grafikoa



Aparteko gastuak daudenean, egoera ekonomikoaren ondorioz gora egiten dute euskal etxeen unitateentzat gastuak eragiten dituzten kargak, eta horrek zaintzari eragiten dio


2014an, areagotu dira mendeko pertsonen arretari lotutako aparteko gastuek etxeen unitateei eragiten dizkieten kargak. 2006an % 44,6an kokatu zen mendeko pertsonen arretarako aparteko gastuei aurre egiteko beste gastu batzuk murriztu behar zituzten etxeen unitateen proportzioa; 2010ean, % 46,7ra igo zen, eta 2014an % 54,1ean kokatu da.

Arazo gehienak aisialdi-gastuen murrizketarekin lotuta daude: 2006an, % 28,8 izan zen adierazlea; 2010ean, % 34,4, eta 2014an % 35 izan da. Hala ere, krisiak batik bat oinarrizko gastuei lotutako murrizketa-modalitateek gora egitea eragin du. 2006 eta 2010 urteen artean, % 15,8tik % 12,3ra jaitsi zen mendekotasunari aurre egiteko oinarrizko gastuak murriztu behar izan zituzten etxeen unitateen proportzioa. Aldiz, 2014an % 19,1era iritsi da.

² Mendekotasun hori gehienbat osasuneko edo adin handiko arazoei lotzen bazaie ere, mendeko adingabeen zaintza ere atal horretan bildu da.

Dinamika horrek efektu nabarmenak ditu mendeko pertsonen arretan, 2006-2010 aldiko hobekuntzaren noranzkoa aldatu baitu. Urte-tarte horretan, mendekotasunari lotutako gastuen murrizketa zuten etxekoek unitateen guztizkoari dagokionez, % 9,1etik % 7,7ra jaitsi zen aipatu murrizketen ondorioz mendekotasuna zuten senideei behar bezalako arreta ematen ez zioten etxekoek unitateen proportzioa. 2014an, berriz, % 14,1ean kokatu da gastu-murrizketak izanda, mendekotasuna duten senideei behar bezalako arreta ematen ez dioten etxekoek unitateen proportzioa.


33. grafikoa



2010 eta 2014 urteen artean gorakada nabarmena izan du mendekotasunari bideratutako aparteko gastuen ondoriozko behar ez bezalako arretak. Hazkundera gastu horiek dituzten etxekoek unitate ia guztietan behatu dugu. Hala ere, ikusi dugu behar ez bezalako arreta, 2014. urtean, askoz lotuago dagoela emakumezkoak buru dituzten etxekoek unitateei (2010-2014 aldian % 8,3tik % 21,6ra igo da proportzioa), 45 urtetik beherakoek taldeari (% 8,8tik % 28,8ra) eta atzerritarrei. Azken multzo horretan, 2006. urteaz geroztik etengabe gora ari da proportzioa, % 29,2 izatetik 2014an % 43,8 izatera igaro baita.

Bestalde, lotura ezarri dezakegu ere langabezia dauden edota lan ezegonkorra duten pertsonak dauden etxekoek unitateekin. Izan ere, biztanleri-talde horretan, behar ez bezalako arretak bilakaera hauxe izan du: 2010ean, gastuok zituzten etxekoek unitateen % 3,7ri eragin zion; 2014an, berriz, % 39,8ra igo da, 2006ko % 17,9 nabarmen gaindituta. Behar ez bezalako arretaren eragina bereziki handia da oinarrizko gabezia duten etxekoek unitateen kasuan, 2006-2014 aldian % 40 inguruan kokatu izan baita. Hala ere, 2010etik 2014ra bitartean, arazo horren eraginak hazkunde handiagoa izan du oinarrizko gabeziarik ez duten etxekoek unitateen artean (% 4,7tik % 11,9ra).

34. grafikoa



4.2. Zaintzaileak


Behera egin du mendeko pertsonak etxean zaintzen dituzten pertsonen proportzioak

GZEE-GPIak gaixotasun, desgaitasun edo zahartasunagatik etxeko unitateko beste pertsona batzuen arreta- edo zaintza-ardura bereziak beren gain hartzen dituzten pertsona jakin batzuen kasuak erregistratu ditu. Kasu horietan, zirkunstantzia jakin batzuk biltzen dira; hain zuzen ere, dedikazio pertsonal handiagoa beharrezkoa den kasuak, etxeko unitateko gainerako kideek laguntzarik ematen ez dutelako edo laguntzarik eman ezin dutelako. 2014. urtean, 15 urte edo gehiagoko 73.230 pertsonak egiten dituzte, adierazitako baldintzetan, beraiekin bizi diren beste pertsona batzuen laguntza- eta zaintza-zereginak. 2010eko eta 2006ko kopuruetatik oso urrun dago hori; urte horietan, hurrenez hurren, 97.227 eta 82.083 pertsona izan ziren.

Halaber, 2010etik 2014ra bitartean behera egin du biztanle-kopuruak Euskadin. Hori dela eta, kopuru erlatiboetan, aipatu murrizketa zertxobait txikiagoa izan da. 2014an % 4koa izan zen beherakada. 2010eko % 5,3 baino txikiagoa izan bazen ere, ez dago oso urrun 2006ko % 4,4tik.

Beheranzko joera orokorra dela esan dezakegu. Salbuespen bakarra 65-74 urte bitarteko taldea da, zeinean zaintzaileen proportzioa % 6,6tik % 7,2ra hazi baita 2010-2014 aldirian. Era horretan, 2006ko ehunekoaren pare jarri da ia-ia (% 7,3). 2010etik 2014ra bitartean, beherakadarik handienak emakumezkoen taldean (% 5,9tik % 4,1era) gertatu dira, bai eta 65 urtetik beherako taldean ere, batik batik 45-54 urte bitartekoei dagokienez (% 7,4tik % 4,9ra jaitsi da). Azken lau urteetako jaitsiera gorabehera, zenbait kasutan 2014ko zaintzaileen proportzioa 2006koa baino handiagoa da; horixe behatu dugu, besteak beste, 75 urtetik gorako artean (% 6,2, % 5,3aren aldean) eta langabeen artean (% 5,1, % 4,1aren aldean).

35. grafikoa



Aurreko urteetan gertatzen zen bezala, aintzat hartutako ia pertsona guztiek mendekotasun berezia duen pertsona bati gutxienez ere ematen diote arreta (2014an, % 96,6 osatu dute). Bi herenak gutxienez ere mendekotasun moderatua duten pertsonak zaintzen dituzte; zehazki, 2014an % 66,8 izan da proportzioa. Horrek esan nahi du joera goranzkoa dela, 2006an % 64,7an kokatu baitzen.


Era berean, txikiagotzen ari dira ere zainketari lotutako kargak

15 urtetik gorako zaintzaileekin jarraituz, beste alderdi bat azpimarratu nahi dugu. Izan ere, ikusi dugu euren zaintza-lanari lotutako kargak murrizten ari direla.

Hobekuntzarik handiena zera da: behera egin duela familia-bizitzako tentsio garrantzitsuek zaintzaileengan duten eraginak. 2006 eta 2010 urteen artean % 17,3tik % 22,2ra igo ondoren, 2014an % 15,5era murriztu da. Era berean, aipatzekoa da ere gizarte-bizitzako uko egiteen beheranzko joera epe luzera. Hala, % 58,4tik (2006) % 53,7ra (2014) murriztu da horien eragina jasaten duten pertsonen proportzioa.

Aldiz, egonkortu egin da zaintza-lanetan egunero bi ordu baino gehiago ematen dituztenen proportzioa. 2014an % 52,3an kokatu da, eta 2010ean % 52,5 izan zen. Hala ere, 2006ko % 54,7arekin konparatzen badugu, behera egin du proportzioak. 2010 eta 2014 urteen artean % 15,2tik % 13,7ra jaitsi bada ere, 2006an lortutako balio bera da, hezkuntza- edo lan-bizitzako uko egiteen eraginari dagokionez.

36. grafikoa





Joera horiek gorabehera, zenbait barne-diferentzia handi daude. Bateko, mendekotasun berezia duten bi pertsona edo gehiago zaintzen dituztenen kasuan hobekuntza oso handia gertatu da. Hala, 2006tik 2014ra bitartean etengabe txikiagotuz joan da, zaintzaileen artean, hezkuntza- zein lan-bizitzako uko egiteen eragina (% 32,5etik % 9ra) eta gizarte-bizitzakoena (% 74,2tik % 47,4ra). Zaintza-lanetan egunean bi ordu baino gehiago ematen dituztenen proportzioa % 70,2tik % 52ra jaitsi da. Proportzio txikiagoan izan arren, behera egin du ere bizitza-familiako tentsioek eragindako pertsonen kopuruak (% 24tik % 19,8ra).

Era berean, hobera egin du gutxienez ere mendekotasun moderatua duen pertsona bat zaintzen dutenen proportzioa, baina intentsitate txikiagoarekin, eta ez modu orokorrean. Izan ere, 2006an, mendekotasun berezia zuten bi pertsona edo gehiago zaintzen zituzten pertsonak baino karga txikiagoak zituzten; aldiz, 2014an, egoera aldatu eta horiek baino karga handiagoak edukitzera iritsi dira.

Aipatu talde horretan, hobekuntza nagusia gizarte-bizitzako uko egiteetan aurkitu dugu: 2006ko % 70,5etik 2014ko % 61,4ra jaitsi da, eta beherakada 2010ean hasi zen funtsean (urte horretan % 69,8 erregistratu zen). Era berean, antzeko hobekuntza behatu dugu bi ordu edo gehiagoko zaintza-lana neurtzen duen adierazlean. 2014an, % 64,2k egiten dute hori, 2006an % 69,1 eta 2010ean % 70 izan ziren bitartean. Hezkuntza-bizitzako uko egiteei (2014an, % 14,8) eta familia-bizitzako tentsio garrantzitsuei (% 20,1) dagokienez, 2014ko egoera 2006koaren antzekoa da: lehenengo kasuan % 14,5etik 14,8ra igaro da, eta bigarrean, bere horretan mantendu da. Hala ere, goranzko joera erakutsi zuten 2010eko datuei erreparaturaz gero, ikusiko dugu proportziook behera egin dutela (hurrenez hurren, % 18,9 eta % 29,3 izan ziren).

Bestalde, mendekotasun edo mugapen arina duten pertsonen zaintzaileen kasuan –lotutako karga txikiagoak dituztenek–, egia da familia-bizitzako tentsio garrantzitsuek minimoa lortu dutela 2014an: % 3,3. Baina, hori alde batera utzita, gainerako balioak aztertutako denbora-epeko txarrenak izan dira. Horrela, gizarte-bizitzako uko egiteek gora egin dute, 2006ko eta 2010eko % 32 eta % 33tik, 2014ko % 40,6ra. Zaintzaile horien artean, gainera, hezkuntza- eta lan-bizitzako uko egiteak areagotzen ari dira etengabe, eta 2006ko % 5,6tik 2014ko % 13,6ra igaro dira. Azkenik, 2014an % 28ra iritsi da zaintza-lanetan bi ordu baino gehiago ematen dituztenen proportzioa, 2006ko % 26tik eta 2010eko % 18,6tik gora kokatuz modu horretan.

5. ARAZOAK HARREMAN PERTSONALETAN ETA GIZARTE HARREMANETAN

2006-2010 aldian gora egin ostean, 2014an egonkortu da portaera- edo jarrera-arazoen eragina. Hala ere, 35 urtetik beherakoen artean okerrera egin du egoerak

GZEE-GPIak portaera- edo jarrera-arazo jakin batzuk aztertzen ditu; hain zuzen ere, pertsonari honako hauekiko harremanetan arazo larriak eragiten dizkietenak: familia, bizilagunak edo eskolan, lanean eta ohiko gizarte-harremanetarako gainerako guneetan harremanak izaten dituen pertsonak. 6 urte edo gehiago dituzten EAEko biztanleen artean, arazo horren eragina ‰ 6,5era iritsi da, 2006ko proportzioaren ginetik (‰ 4,6), baina 2010ekoaren azpitik (‰ 6,8) kokatuz.

Hau da, badirudi adierazlea egonkortu dela; baina, hala ere, kontuan izan behar dugu talde batetik bestera bilakaera oso bestelakoa dela. Zentzu horretan, egiaztatu dugu kasu batzuetan murrizketa oso nabarmena gertatu dela portaera- eta jarrera-arazoen eraginean. Hori bi taldetan da bereziki deigarria. Lehenengoa 65 urtetik gorakoen taldea da, zeinean arazoon eragina ‰ 13,0tik ‰ 5,1era murriztu baita 2010-2014 aldian. Ondorioz, 2006ko ‰ 8,5aren azpitik kokatu da. Bilakaera hori estuki lotuta dago mendekotasun berezia duten biztanleen artean behatu dugunarekin. Kasu horretan, 2006tik 2010era bitartean ‰ 43,3tik ‰ 67,8ra igo zen bitartean, 2014an ‰ 32,4ra murriztu da portaera- eta jarrera-arazoen eragina; ondorioz, 2006ko balioa baino txikiagoa da. Gauza bera gertatu da kide ez-aktiboak dauden etxekoen unitateekin lotutako biztanleen kasuan. Talde horretan, ‰ 5,7k mota horretako arazoak ditu 2014an. 2006ko ‰ 5,1a baino handiagoa da hori, baina 2010eko ‰ 16,7a baino askoz txikiagoa.


2010-2014 aldian, atzerritarren taldea da portaera- eta jarrera-arazoak gehien murriztu diren bigarren multzoa. Baina kasu horretan, beheranzko joera 2006an hasi zen dagoeneko. Hona hemen bilakaera: 2006an, ‰ 10,9; 2010ean, ‰ 6,9, eta 2014an, ‰ 2,1. Dinamika hori erlazionatuta dago aztertutako arazoen eraginak izan duen beherakadarekin, oinarritzko gabezia duten etxekoen unitateekin lotuta dauden pertsonen artean. 2010-2014 aldian ‰ 7,8tik ‰ 8,2ra igo den arren, 2006an, proportzioa ‰ 17,3koa izan zen. Lotura are estuagoa da portaera- eta jarrera-arazoei beste talde batean izandako beherakadari erreparatzen badiogu. Izan ere, kide aktibo guztiak langabezia dauden edota lan ezegonkorra duten etxekoen unitateetan asko murriztu da euren proportzioa. Hala, aztertutako arazoen eragina 2006az geroztik ari da murrizten. Urte horretan ‰ 12 izan zen, eta 2014an ‰ 8,5 besterik ez da erregistratu.

Horren aurka, beste talde batzuetan goranzko joera behatu dugu argi eta garbi. Adibidez, deigarria da 35 urtetik beherakoen artean hautemandakoa. 2006an ‰ 2,5 bestetik ez zen erregistratu; aldiz, 2010ean ‰ 5,6ra igo zen adierazlea, eta 2014an, ‰ 9,1era. Modu berean, beste bi taldetan ere hazkundera behatu dugu; hain zuzen, tokiko biztanleen artean (2006ko ‰ 4,3tik 2014ko ‰ 6,8ra igaro da), eta lan egonkorra duten pertsonekin bizi diren biztanleen artean (2006ko ‰ 3,4tik 2014ko ‰ 6,3ra igaro da).



37. grafikoa

Portaera- edo jarrera-arazoak dituzten 6 urte edo gehiagoko biztanleak, etxekoan unitate, demografia eta norberarekin lotutako zenbait aldagaien arabera
EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren milakoak)



Horretaz aparte, 55-64 urte arteko pertsonen osatzen duten taldean ere gora egin dute portaera- eta jarrera-arazoen 2014. urtean. 2006 eta 2010 bitartean % 7,9tik % 5,5era jaitsi ondoren, adierazleak maximoa lortu du 2014an: % 9,2.

Joera horiek, halaber, sexuaren araberako diferentziak eragiten dituzte. Gizonezkoen artean, arazoen eragina murrizten ari da. 2014an % 5,4 izan zen eta 2010ean, % 7,2; hala ere, oraindik ere 2006ko % 3,9aren gainetik dago. Aurkako egoeran, emakumezkoen artean etengabe areagotzen ari da adierazlea. Hala, 2006az geroztik portaera- eta jarrera-arazoen eragina handitzen ari da emakumeengan, eta urte horretako % 5,3tik 2014ko % 7,5era igo da.

Bere horretan mantentzen da bakardadeak eta tristurak eragindako arazoen eragina. Hala ere, 45-64 urte bitarteko artean eta gizonezkoen artean areagotu da.

Bakardadeak eta tristurak eragindako arazoen egonkortasun handia dute erakutsi dute EAEn. 2006-2014 aldian, % 18,3 eta % 18,7 artean mantendu dira. Baina orokorrean egonkorra izanagatik ere, kontuan izan behar dugu gizarte-taldeen artean diferentzia handiak daudela.

Alderdi positiboak helduz, bakardade- eta tristura-arazoen eragina asko murriztu da atzeritarren artean. Zehazki, 2006az geroztik ari da jaisten: urte horretan, % 91,1 erregistratu zen, eta 2014an, % 33 besterik ez da izan. Bilakaera horrek neurri handi batean azaltzen du oinarriko gabezia-egoeran dauden biztanleen artean gertatutako beherakada (aztertutako epean, % 85,8tik % 46,3ra jaitsi da). Halaber, 65 urtetik gorako artean ere murriztu egin dira bakardade- eta tristura-arazoak. 2006 eta 2010 urteen artean % 42,8tik % 45,2ra igo ziren; ondoren, 2014an % 37,2ra murriztu dira. Hirugarren faktorea 35 urtetik beherako artean arazoen eraginak izandako beherakada da. Batik bat 25-34 urtekoen kasuan gertatu da hori, oso deigarria dena, orain arte arazoen eragin oso handia jasan baitute. Kasu horretan, bakardadearen eragina epe luzera ari da murrizten: 2006an % 20,1era iritsi zen, eta 2014an, % 15,5 izan da.

Adierazitako prozesuok emakumezkoen artean bakardadearen eragina murriztu izanarekin lotuta daude: 2006an % 22,9 izan zen, eta 2014an, % 19,5 besterik ez da erregistratu.


Aurkako egoeran, 45-64 urteko pertsonen artean gora ari da bakardadea. 45 eta 54 urte bitarteko biztanleen artean, goranzko joera jarraitua da: 2006an % 13,3 izan zen, eta 2014an, aldiz, % 22,3 izan da. 55 eta 64 urte bitartekoei dagokienez, bestalde, 2006-2010 aldian % 19,6tik % 10era jaitsi ondoren, adierazlea % 21,5era igo da 2014an. 2014an –eta GZEE-GPIa egiten denetik lehenbiziko aldiz–, 45 eta 64 urte bitarteko artean handiagoa da bakardadearen eragina, 25 eta 34 urte bitarteko artean baino.

Bilakaera hori honako aldaketa txikiago hauen ondorio da: 2010-2014 aldian, bakardadearen eraginak gora egin du gizonezkoen artean (2006ko eta 2010eko % 14,5 ingurutik 2014ko % 17ra igaro da), bai eta tokiko biztanleen artean ere (2006an eta 2010ean % 15 baino apur bat handiagoa izan zen, eta 2014an, % 17,4 izan da).



38. grafikoa

Bakardade- eta tristura-arazoak dituzten biztanleak, etxekoan unitate, demografia eta norberarekin lotutako zenbait aldagairen arabera. EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren milakoak)



Aipatu beharra dago bakardadearen eragina murriztu den biztanleria-taldean kasuan gutxienez ere –batez ere atzerritar, emakumezko eta 35 urtetik beherakoen kasuan–, adierazleak izandako bilakaera ona lotuta dagoela familia-banantzearen arloko arazo larrien eraginak behera egin izanarekin. EAEko biztanleriari dagokionez, 2006 eta 2010 urteen artean arazoon eragina ‰ 7,5etik ‰ 8,5era jaitsi zen, eta 2014an, minimoa lortu du: ‰ 6,2.

2010. urtearekin alderatuta, zertxobait murriztu da familia arloko arretarik eza/bazterketa, jazarpena eta indarkeria bezalako arazoon eragina; alabaina, gora egin dute gazteen eta gizonezkoen artean

EAEko biztanleen ‰ 2,3k honako arazo hauetako bat sufritzen du: familia arloko arretarik eza/bazterketa, edota jazarpena eta indarkeria gizarte-ingurunean. 2010. urtean ‰ 2,7ra igo ostean, 2006ko balioetara itzuli da arazoon eragina.


Edonola ere, biztanle-taldean arabera barne-dinamika desberdinak behatu ditugu. Aldaketa nagusia adinarekin lotuta dago. Alderdi positiboak helduz, 45 urtetik gorako taldean ‰ 2ra murriztu da adierazlea 2014an, 2006-2010 aldian ‰ 3,5etik ‰ 4,5era hazi ostean. Bilakaera hori zenbait taldek izandako hobekuntza handiaren ondorio da: batetik, oinarrizko gabezia duten pertsonak (2006an ‰ 8,3 osatzen zuten; 2010ean, ‰ 14,1, eta 2014an, ‰ 3,1 baino ez); bestetik, biztanle aktibo langabeak edota lan ezegonkorra duten pertsonak dauden etxekoen unitateetan bizi direnak (‰ 2,4tik ‰ 4,6ra igo ostean, 2014an ‰ 2,7ra murriztu da). Era berean, arazoon eraginak emakumezkoen artean izandako murrizketarekin ere erlazionatuta dago aipatu bilakaera. 2006an eta 2010ean ‰ 3 inguruan kokatu zen adierazlea, eta 2014an, ‰ 2,3an.

Alderdi negatiboak dagokienez, 45 urtetik beherakoen artean okerrera egin du egoerak. 25 urtetik beherakoen artean edota 35-44 urte artekoen artean, 2006tik areagotzen ari da eragina. Hala, 2014an ‰ 1,7 eta ‰ 2,5 izan dira, hurrenez hurren, adierazlearen balioak. 2006 eta 2010 bitartean, 25-34 urte bitarteko artean ‰ 3,9tik ‰ 1,9ra jaitsi ondoren, 2014an berriro areagotu da adierazlea, ‰ 4,7ra arte. 2006an dagoeneko gertatzen zen bezala, adin-talde horretako biztanleei eragiten diete gehien hurrengo arazo hauek: familia arloko arretarik eza/bazterketa, edota jazarpena eta indarkeria gizarte-ingurunean.

Aipatutako taldeetako bilakaera txarra gizonezkoen artean adierazleak izandako okerragotze jarraituari dagokio. Izan ere, 2006ko ‰ 1,7tik 2014ko ‰ 2,4ra igo da.



39. grafikoa




Gizarte-bazterketaren pertzepzioa nabarmen murriztu da atzeritarren artean

GZEE-GPIak EAEn bizi diren pertsonen jasaten dituzten gizarte-bazterketako arazoei buruzko informazioa biltzen du. Datu horien bilketan, honako hauei loturiko arazoak hartu dituzte aintzat: jatorri sozial edo geografikoa, arraza, etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa eta atzeritarra izatea. Eta, hain zuzen, alor horretan behatu dugu aldaketa nagusienetako bat, gizarte-harremanei edota pertsonen arteko harremanei lotutako arazo pertsonalei dagokienez. Modu horretan, 2006-2010 aldian % 6,5etik % 9,6ra igo ondoren, % 2ra murriztu da, 2014an, oro har bazterketa-arazoak dituzten pertsonen proportzioa. Arazo larrien kasuan, adierazlea % 2,7tik % 4,5era igaro zen 2006 eta 2010 artean, eta 2014an % 0,9 baino ez du osatu.

Dinamika hori atzeritarrek bizi duten egoeran hautemandako aldaketa handiarekin erlazionatuta dago. Hala, 2006-2010 aldian, bazterketa-arazoen proportzioa % 100 baino handiagoa zen bitartean –gainera, gora egiten ari zen–, 2014an % 23,6an kokatu da.

Bazterketa larrien kasuan ere oso handia izan da jaitsiera. 2006 eta 2010 bitartean % 50,8tik % 59,1era igo ondoren, 2014an % 9,1era murriztu da bazterketa larriaren adierazlea, atzeritarren artean. Espainiako biztanleei dagokienez, bazterketa-adierazleak % 1aren azpitik daude 2014an.

40. grafikoa



Guzтира, aztertutako gizarte-arazo larrien eragina zertxobait murriztu den arren, badirudi egonkortzen ari dela. 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen egoera larriagotzen ari da.


Laburpen gisa, GZEE-GPIak gizarte-arazo sozial larriren baten presentzia aztertzen du, zehazki, orain arte biztanleria egoiliarri dagokionez aintzat hartutako ezaugarri edo zirkunstantzia pertsonaletako bati lotutako gizarte-arazo larriren baten presentzia (horrez gain, barneratzeari edo espetxeratzeari lotutako arazoak aintzat hartzen ditu, eta, bestetik, familia-banantzearen arloko arazoak bakardadea edo tristura eragiten dituztenetara mugatu ditu).

Datuek adierazten dutenez, 54.133 pertsonak gizarte-arazo larrietako bat dute aztertu diren harreman pertsonalei eta familia- eta gizarte-harremanei dagokienez. 2006-2010 aldian % 24,5etik % 27,2ra igo zen arazoon eragina. Ondoren, 2014an, pixka bat murriztu eta EAEko biztanleen % 25,1 osatu du.

2010-2014 aldian, gizarte-talde gehienek bilakaera positiboa erakutsi dute. Zenbait kasutan, ordea, nabarmenagoa izan da gizarte-arazo larrien beherakada, eta GZEE-GPIa egiten denetik baliorik txikiak erregistratu dira. Bereziki bi kategoriatan behatu dugu prozesu hori, 65 urtetik gorako pertsonak osatutakoan eta atzerritarren artean.

41. grafikoa

Harreman pertsonaletan eta familia- eta gizarte-harremanetan arazo larriren bat duten biztanleak, etxeko unitate, demografia eta norberarekin lotutako zenbait aldagaien arabera. EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren milakoak)



65 urtetik gorako biztanleen artean, arazoon eragina % 41,6ra murriztu da 2014an. 2006 eta 2010 urteen artean gora egin zuen adierazleak, % 51,9tik % 57,7ra. Bilakaera horrekin batera, mendekotasun berezia duten pertsonen artean ere behera egin du eraginak (2006an eta 2010ean % 140tik gora zegoen, eta 2014an % 128,8ra jaitsi da).

Atzerritarrei dagokienez, are handiagoa izan da murrizketa, aztertutako epean modu jarraituan behera egin baitu: 2006an % 125 izan zen; 2010ean, % 113, eta 2014an, % 46,2. 2010-2014 aldian asko jaitsi da adierazlea biztanleria-talde horretan, eta hori erlazionatuta dago urte-tarte berean honako bi talde hauetan gertatutako beherakadarekin: oinarritzko gabezia duten etxeen unitateetan bizi diren biztanleengan (2006an eta 2010ean % 110 baino handiagoa zen, eta 2014an % 59,8 izan da), eta langabezian dauden kide aktiboekin edota lan ezegonkorra duten pertsonekin bizi diren pertsonengan (2006an % 62,5 izan zen; 2010ean, % 54,6, eta 2014an, % 43,3).

Bi prozesu horiek mesede egin diete emakumezkoiei (2014an, % 28,1ak ditu arazo larriak; 2006an, % 29,1 ziren, eta 2010ean, % 30,2), baina baita biztanle gazteenei ere. Horrela, 25 urtetik beherako biztanleen artean, adierazlea % 9,3ra jaitsi da 2014an, 2006 eta 2010 urteen artean gora egin ondoren, % 11,8tik % 13,4ra.

Alderdi negatiboiei dagokienez, 45-64 urtekoen taldean nabarmen okerrera egin du adierazleak. 2006an eta 2010ean, % 21,5 inguruan kokatu zen harreman pertsonaletan eta familia- eta gizarte-harremanetan arazo larriek zuten eragina. 2014an, berriz, % 30era igo da. Horretaz aparte, eragina beste talde batean ere areagotu da; hain zuzen, osasunari edo adin handiari lotutako mugapenak dituzten baina mendekotasun berezirik ez duten pertsonen artean. Biztanleen kasuan, adierazlea 2006az geroztik ari da areagotzen. Urte horretan, % 70,8 izan zen, eta 2014an, % 83,8ra iritsi da.



6. ARAZOAK EMANTZIPAZIO ETA UGALKETA PROZESUETAN

Behera egiten jarraitzen du egungo etxekoan unitatetik independizatzeko arazoak dituzten pertsonen proportzioak; era horretan, 2006-2010 aldian behatutako joerari eutsi dio.

GZEE-GPIak egungo etxekoan unitatetik independizatu nahi duten eta arrazoi ekonomikoak tartean ezin duten pertsonen egoerak aztertzen ditu. 2014an ere arazo garrantzitsua da hori EAEn, guztira 133.437 baitira etxekoan unitate independente bat osatu nahi bai baina zailtasun ekonomikoan ondorioz ezin duten pertsonak. Hala ere, 2006tik 2014ra bitartean, arazo horren eragin erlatiboak jaitsiera nabarmena izan du. Behera egin du bizitza independentea izateko EAeko biztanleek dituzten arazoan pisuak: 2006an, % 11,5ak zituen arazoak; 2010ean, % 8,3k, eta 2014an, % 7,1ak.


Jaitsiera orokorra dela esan dezakegu. Izan ere, 35 urtetik gorakoan kasuan baino ez dugu behatu adierazlea egonkor mantendu dela, edota beherakada ez dela hain handia izan. Batez ere, 35-44 urtekoan artean ikusi dugu hori. Kasu horretan, egungo etxekoan unitatetik independizatzeko arazoak dituztenen proportzioak behera egin zuen 2006tik (% 9,7) 2010era (% 8,7) bitartean; 2014an, antzeko balioei eutsi die, % 8,5ean kokatu baita. Halaber, 45 urte edo gehiagokoan taldean ere bere horretan mantendu da adierazlea, % 1,6 eta % 1,7 inguruan kokatu baita.

Ikuspegi demografikotik, beherakada handienak 16 eta 34 urte bitartekoan taldeari dagozkio. 16 eta 24 urte bitartekoan taldean, independizatzeko arazoan eraginak bilakaera haxe izan du: 2006an % 31,4 zen, 2010ean, % 20, eta 2014an, % 13,9. 25-34 urtekoan taldean, nabarmena izanagatik ere, murrizketa ez da hain handia izan: 2006. urteko % 37,1etik 2010eko % 31,3ra igaro zen adierazlea; ondoren, 2014an, % 29,9ra jaitsi da. Ikusi dezakegunez, taldeotan, adierazlearen beheranzko joera handiagoa izan da 2006tik 2010era bitartean. 2014an joera horri eutsi zaio, baina ez da hain nabarmena izan, bereziki 25-34 urtekoan artean. Izan ere, talde horrek ditu, oraindik ere, bizitza independentea osatzeko zailtasun handienak.

Gizonezkoen artean, egia da arazoan pisuak behera egin duela 2010-2014 aldian, baina erritmoa asko moteldu da. Hala, gizonezkoen artean, 2006ko % 14,3tik 2010eko % 9,4ra igaro zen adierazlea, eta 2014an, % 8,6an kokatu da. Emakumezkoen artean, berriz, beherakada erregularragoa eta luzeagoa izan da (% 8,9, 2006an; % 7,2, 2010ean; % 5,7, 2014an). Era berean, murrizketa gertatu da ere hurrengo talde hauetan: tokiko biztanleen artean (2006an, % 10,3; 2010ean, % 7,6; 2014an, % 7); lanean ari direnen artean (2006an, % 18,6; 2010ean, % 11,1; 2014an, % 10,4); eta gabeziarik gabeko etxekoan unitateetan bizi direnean artean (2006an, % 10,6; 2010ean, % 7,6; 2014an, % 6,8).

42. grafikoa

Egungo etxekoen unitatetik independizatu nahi duten eta, arrazoi ekonomikoak tarteko, ezin duten biztanleak, etxekoen unitate, demografia eta norberarekin lotutako zenbait aldagaien arabera. EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren milakoak)




Ikuspegi sozialetik, aipatu beharra dago asko murriztu dela bizitza independentea eratzeko zailtasunen eragina atzerritarren artean, 2006tik, etengabe jaisten ari baita: urte horretan % 35,4 izan zen, eta 2014an, aldiz, % 8,5 erregistratu da. Joera hori bat dator oinarrizko gabezia-arazoak dituzten biztanleen artean behatu dugunarekin. 2006tik 2014ra bitartean, arazook modu jarraituan behera egin dute, % 24,2tik % 8,8ra.

Era berean, etxekoen unitate independentea eratzeko beharrak beherakada nabarmena izan du langabeen artean 2010etik 2014ra bitartean (% 31,6tik % 20,3ra). Kasu horretan, hala ere, gorakada gertatu zen aurretik, 2006an % 29,4 baitzen proportzioa. Fenomeno hori ez dugu talde horretan bakarrik hauteman: ugalketa demografikoko arazoak (nahi dituzten seme-alaben kopurua izatekoak) dituzten etxekoen unitateei lotutako pertsonen artean ere gauza bera gertatu da. Kasu horretan, adierazlea % 14,8tik % 15,6ra hazi da 2006 eta 2010 artean, ostean, 2014an, % 4,4ra jaisteko.

2014an gora egin dute nahi dituzten seme-alaben kopurua izateko arazoek; hori tokiko biztanleen artean behatutako joerarekin bat dator.

2014ko datuekin bat, euskal etxekoen unitateen % 5,6k (49.358) familia- edo demografia-ugalketako arazoak ditu, ez dauzkatelako nahi dituzten seme-alaben kopurua. Ugalketa-arazoen eraginak berriz ere gora egin du 2014an, 2006 eta 2010 urteen artean % 6,2tik % 5,1era jaitsi ostean. Gaur egun, areagotzen ari da EAEko etxekoen unitateen kopurua. Ondorioz, joera horrek adierazten du kopuru absolutuetan, areagotu egin dela ere arazo horrek eragindako etxekoen unitateen kopurua (2006an, 48.651 unitatek zuten arazo hori). Horren atzean hainbat arrazoi badaude ere, lan-ezegonkortasuna da garrantzitsuenak. Faktore horrek balio maximoa lortu du 2014an (% 4), eta hala, beste arazo batzuen parean jarri da, hala nola baliabide urriari edo etxebizitza desegokia izateari lotutakoaren parean. Bestalde, seme-alaben zaintzarekin lotutako arazoek % 3,2 osatu dute.

43. grafikoa




2010 eta 2014 urteen artean gora egin dute ugalketa-arazoek, adin-talde guztietan. Arazo horrek 35 urtetik beherakoak buru diren etxeetan du, oraindik ere, eraginik handiena, 2014an, % 20,2ra iritsi baita. Baina, hala ere, deigarria da 35 eta 44 urte artekoen artean behatu dugun goranzko joera; 2014an % 13,3 osatu du adierazleak, 2006an eta 2010ean, % 11,5aren inguruan zegoen bitartean. Beste alde batetik, 2010-2014 urteetan izandako gorakada lanean dauden biztanleei lotuta dago, bai baldintzak egonkorrak bai ezegonkorrak dituztenei (hurrenez hurren, % 6,1etik % 7,6ra eta % 11tik % 12,6ra igo da, 2006. urteko antzeko balioetara itzuliz).

Era berean, aipatu beharra dago ugalketa-arazoen areagotzea tokiko biztanleen artean gertatu dela gehienbat. 2014an, eragindako etxeen unitateek % 5,4 osatu dute; aldiz, 2010ean, % 4,1 izan ziren eta 2006an, % 5,3. Horren aurka, atzeritarren artean arazoon proportzioa behera egiten ari da modu jarraituan. Hala, 2006an etxeen unitateen % 35,1ak arazoak zeuzkan nahi zituen seme-alabak edukitzeko; 2010ean, proportzioa % 27,2 baino ez zen izan, eta 2014an, % 9ra murriztu da. 2014an, aipatu dimentsioan arazoak dituzten etxeen unitateen % 91,6 tokiko biztanleek osatutakoak dira.

Eta joera horrekin lotuta, murrizketa gertatu da ere ugalketa-arazoak dituzten biztanleen kopuruan, gabezia duten etxeen unitateetan. 2006 eta 2010 bitartean % 15,1etik % 18,5era igo ondoren, 2014an % 11,6ra murriztu da adierazlea.

44. grafikoa





Aldiz, gabeziarik gabeko etxekoen unitateetan, 2006 eta 2014 bitartean % 5,5etik % 3,9ra jaitsi ondoren, ugalketa-arazoak % 4,8ra igo dira 2014an. Dinamika hori, halaber, lan egonkorra duten pertsonak dauden etxekoen unitateetan ere behatu dezakegu. Izan ere, 2010 eta 2014 urteen artean, ugalketa-arazoaren eragina areagotu da talde horretan, % 6,1etik % 7,6ra, 2006ko balioetik oso gertu kokatuz era horretan (% 8).

Hala ere, 2010-2014 tartean izandako gorakada hori lan-ezegonkortasuna duten pertsonak dauden etxekoen unitateekin erlazionatuta dago. Lan ezegonkorra duten pertsonak dauden etxekoen unitateen kasuan, 2010-2014 aldian % 11tik % 12,6ra handitu da proportzioa, 2006ko baliora iritsiz ia-ia (% 12,8).

Era berean, deigarria da lanean ari diren pertsonak dauden etxekoen unitateek dituzten ugalketa-arazoaren eragina handiagoa izatea kide guztiak langabezian dituzten unitateetan 2014an erregistratutako balioa (% 5,8) baino. Langabeak dauden talde horretan, lortutako proportzioa 2006-2014 epeko txikiena da (2006an, % 6,5 izan zen eta 2010ean, % 8,4).

7. ETXEKOEN UNITATEEN ZERBITZU ETA PRESTAZIO ESKARIA

7.1. Gizarte-zerbitzuen erabilera

Nahiko egonkor mantendu da gizarte-zerbitzu publikoen erabilera; ordea, gora egin du gabezia-eta langabezia-egoeren ondoriozko erabilerak, eta hori apur bat paradoxikoa da

2006 eta 2010 urteen artean % 15,1etik % 16,7ra handitu da gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten euskal etxekeen unitateen proportzioa, inkesta egin aurreko hiru urteetan. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitza Prestazio Osagarriaren kudeaketa Lanbidera transferitu diren arren, proportzioa % 16,1aren inguruan kokatu da. 2010. urtearekin alderatuta, ehunekoak behera egin duela dirudien arren, nolabaiteko egonkortasuna dago gizarte-zerbitzu publikoen erabilera, batez ere kontuan hartuta Lanbide dela-eta haustura handiagoa izan zitekeela.

Hala ere, egia da talde batzuetan beherakada erregistratu dela gizarte-zerbitzu publikoen erabilpenean. Horietako gehienek gorakada handia izan zuten 2006tik 2010era bitartean. Prozesu hori batik bat bi etxekeen unitateetan gertatu da; zehazki, lanean ari diren pertsonak dauden unitateetan eta bertako kide guztiak inaktibo daudenetan. Hala, 2010ean eta 2014an, oinarrizko zerbitzu publikoen erabilera % 11tik % 8,3ra jaitsi da lan egonkorra duten pertsonak bizi diren etxekeen unitateetan, eta % 33,9tik % 24,7ra, lan ezegonkorra duten pertsonak bizi diren unitateetan. Bi kasuotan, 2014ko proportzioa 2006kotik behera dago (% 11,5 eta % 25,6 dira, hurrenez hurren). Kide ez-aktiboak dituzten etxekeen unitateetan ere gauza bera behatu dezakegu: 2010eko % 21,3tik 2014ko % 18,2ra jaitsi da. Edonola ere, oraindik 2006ko % 17aren gainetik dago.


Ikuspegi demografikotik, beheranzko joera hori 55 eta 74 urte arteko pertsonak buru diren etxekeen unitateekin lotuta dago. 2014an gizarte-zerbitzu publikoen erabiltzaileen % 11 osatu dute; 2010ean eta 2006an handiagoak izan ziren proportziook, % 15,5 eta % 11,9, hurrenez hurren. 75 urte eta gehiagokoan artean gora egiten jarraitu du gizarte-zerbitzuen erabilerak, % 17,5etik (2006) % 24ra (2014) igaro baita. Hala ere, 2014ko datuari erreparatuz gero, ikusiko dugu asko moteltzen ari dela joera, 2010ean % 23,1 erregistratu baitzen.

Era berean, joera hori biztanle atzerritarren kopuruak izandako bilakaerarekin ere erlazionatuta dago. 2006 eta 2010 urteen artean % 46,1etik % 57,8ra handitu zen gizarte-zerbitzu publikoetara jo zuten atzerritarrez osatutako etxekeen unitateen proportzioa. 2014an, berriz, % 50,2ra jaitsi da. Krisiaren garrantzia kontuan hartuta, talde horretan ondo baino hobeto hauteman dezakegu DBE eta EPO prestazioen kudeaketa Lanbidera transferitzeak eragindako efektua.



45. grafikoa

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu publikoak erabili dituzten etxeen unitateak, etxeen unitatearen eta bertako buru den pertsonaren aldagai demografikoen arabera. EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren ehunekoak)




Alabaina, gabezia- eta langabezia-egoerekin lotutako eskariaren benetako bilakaera ez dator bat aipatu transferentzia-prozesuarekin. Horren ondorioz, a priori Lanbidek gain hartu beharko luke, neurri handi batean, eskari hori. Eta aipatutako taldeetan, guztiz aurkakoa gertatzen ari da. Izan ere, oraindik ere areagotzen ari da krisia dela-eta gabezia duten eta gizarte-zerbitzu publikoetara jotzen duten etxekoen unitateen kopurua. Hona hemen adierazlearen bilakaera: 2006an % 41,1 izan zen; 2006an, % 51,7, eta 2014an, % 53,1. 2006tik 2010era bitartean zertxobait murriztu ondoren (% 43,9tik % 42,6ra), eskariaren gorakada are nabarmenagoa izan da pertsona aktibo guztiak langabezia dauden etxekoen unitateetan, 2014an maximora iritsi baita: % 51,9.

Dinamika hori estuki lotuta dago 55 urtetik beherako pertsonak buru diren etxekoen unitateekin. 35 urtetik beherakoak buru diren etxekoen unitateetan, eskaria gora egiten ari da, etengabe, 2006tik. Urte horretan % 18,4 izan zen, eta 2014an, % 23,2 erregistratu da. 35 eta 54 urte artekoen etxekoen unitateetan, eskaria % 15,8tik % 13,9ra murriztu zen 2006-2010 aldian; ondoren, 2014an, % 16ra igo da.

Bilakaera horrek erakusten duenez, gero eta gazteagoak dira gizarte-zerbitzu publikoen eskatzaileak, pobrezia eta langabezia tartean direla. 2006 eta 2010 bitartean behera egin ostean (% 53,4tik % 45,6ra), 2014an berriro handitu da 55 urtetik beherakoen etxekoen unitateek hartzen duten eskariaren proportzioa (% 52,3). Beste alde batetik, guztizko eskariaren banaketan, oinarrizko gabezia-arazoak dituzten etxekoen unitateak % 39,6 osatzera igaro dira 2014an. 2006an % 18,5 izan ziren, eta 2010ean, % 24,6. Kide aktibo guztiak langabezia dituzten etxekoen unitateek, berriz, guztizko eskariaren % 28,7 hartu dute 2014an, 2006an eta 2010ean % 10aren inguruan kokatu ostean.

46. grafikoa





Gabeziak eta langabeziak ere zerbitzu asoziatiboan erabilerak gora egitea eragin dute

Gabezia- eta langabezia-egoerek gora egin dute; horren ondorioz, nabarmen gora egin du mugimendu asoziatiboaren zen Elizari lotutako erakundeen –Caritas kasu– gizarte- eta arreta-zerbitzuetan egindako laguntza-eskariak. Hala, 2006-2010 aldian % 1,9tik % 1,6ra murriztu ondoren, % 3ra igo da eskaria 2014an.

Gorakada hori estuki lotuta dago pobreziarekin, eta oinarrizko gabezia-egoerak eragiten ditu. Testuinguru horretan, eskariak, 2014an, 2006-2010 aldian behatutako gorakadari eutsi dio (% 7,9tik % 14,1era). Are gehiago, maximora iritsi da, gabezia-egoeran dauden etxekoen unitateen % 18,7k zerbitzu horiek eskatu baititu. Eskari hori, halaber, kide guztiak langabezian dauden etxekoen unitateekin ere lotuta dago, talde horretan ere hazkundera gertatu baita: 2006an % 3,7 izan zen, 2010an % 9,5, eta 2014an % 16,2ra iritsi da. Horretaz aparte, eskariaren goranzko joera lan ezegonkorra duten pertsonak dauden etxekoen unitateetan ere hauteman dugu: 2006an % 6,3 izan zen; 2010ean % 8,1, eta 2014an % 9,2ra iritsi da.

2010etik, eskariaren banaketan, oinarrizko gabezia duten etxekoen unitateek % 70 baino gehiago osatu dute. 2014an, berriz, kide guztiak langabezian dituzten unitateek % 48 osatu dute (eta % 20,9, lan ezegonkorra duten kideren bat dagoen unitateek).


Zerbitzu asoziatiboan eskariak izandako gorakada hori oso lotuta dago atzeritarren eta etxekoen unitate gazteen artean hautemandako bilakaerarekin. Lehenengo kasuan, honela gehitu da proportzioa: 2006an eta 2010ean % 21aren ingurukoa izan zen, eta 2014an, % 26,6koa. Gazteei dagokienez, 2006ko % 6 ingurutik 2010eko % 10era igo da eskaria, 35 urtetik beherako etxekoen unitateetan. Eta 35 eta 44 urte arteko pertsonak dauden etxekoen unitateetan, berriz, 2010era arte % 2aren inguruan kokatu zen bitartean, 2014an % 5,6ra igo da.

Zerbitzu asoziatiboan eskariaren banaketari dagokionez, 2014an % 63,8 osatu dute 45 urtetik beherako etxekoen unitateek; horien barruan, % 46,7 atzeritarrak dira.


Tokiko biztanleez osatutako etxekoen unitateetan, 2006 eta 2010 bitartean % 65,2tik % 40,1era jaitsi ondoren, 2014an % 53,3ra igo da eskaria. Dinamika horrek erakusten du egoera okerrera egiten ari dela tokiko biztanleen artean, orain arte, orokorrean gutxi eskatu izan baitute laguntza-mota hori. 2014an, Espainiako nazionalitatea duen pertsona bat buru den etxekoen unitateen % 1,7k eskatu du laguntza hori, 2006-2010 aldian % 1,3tik % 0,7ra murriztu zen bitartean. Gainera, 45 urtetik gorako pertsonen etxekoen unitateei dagozkien eskaria ere zertxobait handitu da. Hala, 2014ko % 1,5ak ia-ia bikoizten du 2010eko proportzioa (% 0,8), eta 2010eko balioa (% 1,3) ere gainditzen du. 45 urtetik gorakoak dauden etxekoen unitateen pisua % 33,7tik % 36,2ra igo da 2010 eta 2014 urteen artean. Nolanahi ere, proportzio hori 45 urtetik beherakoena baino askoz txikiagoa da oraindik.

47. grafikoa

Azken hiru urteetan zerbitzu asoziatiboak erabili dituzten etxeen unitateak, etxeen unitatearen eta bertako buru den pertsonaren aldagai demografikoen arabera. EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren ehunekoak)



48. grafikoa



7.2. Prestazio eta laguntza ekonomikoaren eskaria EAEn

Krisia dela eta, presio handia jasaten ari da EAEko prestazio-sistema. Hala ere, 2010etik 2014ra bitartean, bere erantzuteko ahalmena handitu du.


Krisiak eragin bereziki handia izan du diru-sarrerak bermatzeko EAEko laguntza-sistema osatzen duten laguntzen eta prestazioen eskarian. Sistema horretan DBE/EPO/GLL prestazio-eredua barne sartzen da, bai eta diru-sarrerak bermatzea ere xede duten beste beste prestazio orokor edo osagarri batzuk ere (KGP/GOF eta garai bateko GBLP, gaur egun DBE prestazioaren barruan sartzen direnak; horrek azaltzen du pentsiodunen artean, diru-sarreraren bermea handiagoa izatea). 2006an etxeen unitateen % 5,7k egin zuten eskaria; 2010ean, apur bat igo zen (% 6,8) baina 2014an gorakada handia izan du, unitateen % 11,3ra iritsi baita.

Bilakaera hori ikusita, argi dago sistema horrek zeregin gero eta garrantzitsuagoa duela pobrezia- eta gabezia-arazoak dituzten biztanleen babesean. Izan ere, behera egin du maila txikiagoko beste laguntza ekonomiko batzuen eskariak, zeinak normalean udalak kudeatzen baititu eta hainbat alderdirekin lotuta baitaude; esaterako, etxebizitza-tasen hobaria, eskolako jantokirako bekak, haurtzaindegirako bekak, udal edota erakunde asoziatibo batzuek aurrera egin ahal izateko laguntza zehatzak. Kasu horretan, adierazlea etxeen unitateen % 6,6tik % 9,2ra hazi da 2010 eta 2013 artean. Ostean, 2014an, % 7,5era jaitsi da.

Hala ere, bilakaera-diferentzia handiena batez ere Espainiako laguntza-sistema osagarriaren kasuan hauteman dugu (LEA, PREPARA, Emantzipatzeko Oinarrizko Errentaren barruan oraindik indarrean dagoen atala). Hala, 2006-2010 aldian % 1,2tik % 2,2ra igo zen bitartean, 2014an % 1,6ra murriztu da.

Sistema guztien benetako erabilerari erreparatuz gero, ikusiko dugu adierazitako joerak ez direla aldatzen. Era horretan, 2006an eta 2010ean, etxeko unitateen % 5 inguruk erabili zuten EAEko oinarrizko babes-sistema; 2014an gora egin du proportzioak, etxeko unitateen % 9,4k baliatu baitute. Horren aurka, beherakada erregistratu da euskal herri-administrazioen edota sistema asoziatiboaren maila txikiagoko laguntza osagarrien erabileran, % 7,1etik 6,4ra (hala ere, oraindik ere 2006ko % 4,3aren gaineratik dago). Euskal etxeko unitateen % 1,3k inguruk baino ez dute baliatu LEA, PREPARA eta bestelakoetara lotutako estatuko asistentzia-laguntzen sistema.

49. grafikoa




Gorakada handia gertatu da DBE/EPO/GLL sistemak emandako arretan eta EAEko oinarrizko babes-sistemaren maila txikiagoko bestelako prestazioetan. Horren arrazoia ez da soil-soilik premiak areagotu izana, baizik eta eskariari aurre egiteko ahalmena hobetu izana ere. 2006 eta 2010 urteen artean, % 88,8tik % 77,5era jaitsi zen sistemak arreta emandako etxeko unitate eskatzaileen proportzioa. 2014an % 83ra igo bada ere, 2006ko proportzioaren azpitik jarraitzen du oraindik.

Beste alde batetik, euskal herri-administrazioek edota sistema asoziatiboak ezarritako maila txikiagoko laguntza osagarrien eskurapenak goranzko joerari eutsi dio. Hala, 2006an eskariaren estaldura % 65 izan zen bitartean, 2010ean % 77,4ra igo zen, eta 2014an, % 85,5era.



50. grafikoa



EAEko oinarrizko babes-sistemak gabeziari eta langabeziari aurre egitea du helburu. Hala, gora egin du tokiko biztanleez zein 45 urtetik gorakoez osatutako etxeko enitateek arretan duten presentziak.


EAEko babes-sistemaren prestazio orokorren xede nagusia oinarrizko gabezia-egoeran edota egoera hortik oso gertu dauden taldeak babestea da. 2006an, oinarrizko gabezia-egoeran egoteagatik arreta jasotako etxeko enitateen proportzioa % 25,5 izan zen, eta 2010ean, % 29,9. 2014an, berriz, % 48,9ra iritsi da. 2006. eta 2010. urteekin alderatuta, 2014an gora egin du gabeziarik izan gabe laguntza jaso duten etxeko enitateen proportzioak. Hala ere, % 4 besterik ez du osatu. Arreta jasotako etxeko enitateen guztizko banaketari helduz gero, gabezia-egoeran daudenak % 34,7 osatzetik % 44,8 osatzera igaro ziren 2006-2010 aldian, eta 2014an, berriz, % 62,7ra igo dira.

Horren arrazoi nagusia hurrengo hauxe da: aldaketa handia gertatu da kide aktiboak eduki arren, guztiak langabezian dauden etxeko enitateetan. Sistemaren bitartez arreta emandako enitateen proportzioa % 44koa izan da 2014an, 2006tik 2010era bitartean % 31,5etik % 24,6ra murriztu ostean. Edonola ere, 2014an, halaber, gorakada handia behatu dugu kide aktiborik ez duten etxeko enitateen arretari dagokionez. 2006an eta 2010ean proportzioa % 4,5aren inguruan kokatu zen bitartean, 2014an % 11,1era igo da. Enpresa batean lan ezegonkorra duten kideak dauden etxeko enitateei dagokienez, behera egin du proportzioak, nahiz eta oraindik handia izaten jarraitzen duen. Izan ere, 2006an % 11,2 besterik ez zen izan; 2010ean urtean % 19,2ra iritsi zen, eta 2014an, % 17,3an kokatu da. Beste alde batetik, behera egiten jarraitu du lan egonkorra duen kideren bat bizi den etxeko enitateek EAEko oinarrizko babes-sisteman duten partaidetzak: 2006an % 3 izan zen, eta 2014an % 2an kokatu da.

Lanean ari diren kideak dauden enitateek sisteman duten presentziak murrizketa nabarmena izan du: 2006-2010 aldian % 53,4 eta % 59,2 artekoa izan zen bitartean, 2014an % 24,6ra baino ez da iritsi. Baina, horren aurka, areagotu da kide guztiak langabezian dauden etxeko enitateen proportzioa, honela: 2006an eta 2010ean % 20 ingurukoa izan zen, eta 2014an, % 41,8koa. Era berean, gora egin du ere inaktibo dauden kideak dituzten etxeko enitateen pisuak: 2006an % 25,9 izan zen, 2010ean, % 21,9, eta 2014an, berriz, % 33,6.

51. grafikoa

Azken urtean babes ekonomikorako EAEko sistemaren laguntzak baliatu dituzten pertsonak dauden etxeen unitateak, etxeen unitatearen eta bertako buru den pertsonaren aldagai demografikoen arabera. EAE. 2006-2014
(talde bakoitzaren ehunekoak)




Demografiari dagokionez, 2014an gora egin du EAEko oinarrizko babes-sistemak emandako arretak; eta, hazkunde horretan, oraindik ere nabarmen gora egiten ari da arreta hori baliatu duten etxeen unitate gazte eta atzerritarren proportzioa. 35 urtetik beherakoen kasuan, proportzioa % 12,5etik % 11,7ra murriztu ostean, gora egin du 2014an, etxeen unitateen % 18ra iritsiz. Bestalde, 35 urtetik 44 urtera bitarteko taldean, denbora-epe osoan gora egin du arretak, honela: 2006an % 5,1 zen, 2010ean, % 7, eta 2014an, % 12,3.

Nolanahi ere, 45 urte baino gehiagokoen artean ere aipatzekoa da hazkundera. 45 urtetik 54 urtera bitarteko pertsonak buru diren etxeen unitateen taldean, 2006-2010 aldian % 5,7tik % 4,1era murriztu zen EAEko oinarrizko babes-sistemak emandako arreta. 2014an, aldiz, % 8,6ra iritsi da. Ildo berean, 55 urtetik gorako taldeari dagokionez, 2006-2010 urteetan % 3,2tik % 3,9ra murriztu ondoren, % 7,2ra igo da arretaren adierazlea 2014an. Izan ere, aurreko urteetan behera egin zuen 45 urtetik gorako pertsonen osatutako etxeen unitateen proportzioak, % 54,1etik % 52,2ra. Ostera, 2014an maximora iritsi da; % 58ra, hain zuen.

